


ALEGIAKO UDALERRIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA HASIERAKO DOKUMENTUA

2014ko maiatza





ALEGIAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

HASIERAKO DOKUMENTUA

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	1
II. INFORMAZIOA.....	2
II.1. FORMULARIOA. URRIAREN 16KO 211/2012 DEKREUAREN V.ERANSKINA.....	2
II.2. FORMULARIOAREN MEMORIA OSAGARRIA.	2
III. PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA.....	3
III.1. PLANAREN JARDUN-ESPARRUA ETA KOKAPENA	3
III. 2 OROGRAFIA'	4
III. 3 EZAUGARRI GEOLOGIKOAK.....	4
III. 4 EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA'.....	6
III. 5 HIDROLOGIA.....	7
III. 6 LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK	10
III. 7 INTERESEKO FAUNA	13
III. 8 INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK	14
III. 9 PAISAIA.....	17
III. 10 KULTUR ONDAREA	18
III. 11 INGURUMEN-PROZESU ETA ARRISKUAK	19
III. 12 INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK	22
IV. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA.....	24
IV. 1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK.....	24
IV. 2 TOLOSA (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ZATIKAKO PLANA	25
IV. 3 LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LAP).....	26
IV.4. AZTERTUTAKO ESPARRUAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUK	35
V. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA ETA AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA ETA INGURUMEN AZTERKETA	38
V. 1 PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	38
V. 2 AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEAK.....	38
V.3 PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA.....	39
V. 4 AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN-AZTERKETA	40
VI. HAUTABIDEAK AUKERATZEKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK ETA INGURUMEN-HELBURUAK.....	66
VII. PARTE-HARTZE PUBLIKOA.....	70
PLANOAK	

**PLANOAK:**

Plano zk.	Izenburua	Eskala
<i>Ingurumen diagnostikoa</i>		
I.1	Orografia	1: 18.000 DIN A3
I.2	Lurzoruak: ahalmen agrologikoa	1: 18.000 DIN A3
I.3	Hidrologia	1: 17.000 DIN A3
I.4	Lur-erabilerak	1: 17.000 DIN A3
I.5	Interes bereziko landaredia	1: 17.000 DIN A3
I.6	Ingurumen arriskuak	1: 17.000 DIN A3
<i>Aintzat hartutako hautabideen kokapena eta ingurumen azterketa</i>		
II.1	0 hautabidea: antolamendu orokorra	1: 8.000 DIN A3
II.2	1. hautabidea: antolamendu orokorra	1: 8.000 DIN A3
II.3	2. hautabidea: antolamendu orokorra	1: 8.000 DIN A3
II.4	A.I.U. 4 Erbeta Iparra – A.I.U. 20 Txintzarri. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 1.500 DIN A3
II.5	A.I.U. 5 Orendain. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 500 DIN A3
II.6	A.I.U. 6 Hegoalde. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 500 DIN A3
II.7	A.I.U. 13 Errota. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 600 DIN A3
II.8	A.I.U. 17 Begiristain Berri – A.I.U. 19 Etxe-Eutera. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 1.000 DIN A3
II.9	A.I.U. 18 Franconi. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 700 DIN A3
II.10	A.I.U. 19 Osiribar. Ingurumen baldintzatzaileak	1: 1.500 DIN A3

I. SARRERA

Plan eta Programen Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa baliabide naturalak zaindu eta ingurumena babesteko prebentzio-baliabide egokia da. Baliabide honen bitartez ingurumen aldagaia kontutan hartzen da ingurumenaren gainean eragin nabarmena duten plan eta programei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Europar Batasunak plan eta programa hauek ingurumenaren aldetik aztertzeko garrantzia onartu zuen eta, hala, ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua ezarri zuen, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko.

Zuzentarau hau apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginen ebaluaketari buruzkoak, barneratu zuen. Lege hau, ingurumen ebaluaketari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetua eta ordezkaturia izan da.

EAEko esparruan, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak arestian aipatutakoei aurre hartu zien eta plan eta programen ingurumen ebaluaketarako prozedura ezarri zuen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren bitartez garatua. 2012ko urriaren 16an, 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, onartu zen, aurreko Dekretua indargabetu eta ordezkaturia.

211/2012 Dekretuak plan eta programen ingurumen ebaluaketa estrategikoa aplikatzeko esparrua jartzen du, Estatuko oinarritzko araudia kontutan hartu eta EAEk gain honen inguruan dituen eskumenak garatzen dituelarik. Dekretu honek Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa (IEE aurrerantzean) aplikatzeko esparrua zehazten du 4. artikuluan, 3/1998 Legearen I. Eranskinaren A atalean jasotzen diren plan eta programei dagokienean. Prozedura honen mende dauden planen artean Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak daude.

Dekretu honen 8. artikuluan, *Hastea*, zehazten denaren arabera, organo sustatzaileak [Alegiako Udalak] hasierako agiri bat igorriko dio ingurumen arloko organoari [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza] artikulua horretan bertan zehazten den edukia izango duena.

Dokumentu hau, hain zuzen ere, Alegiako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren (HAPO) hasierako agiria da. EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresako honako teknikariek idatzi eta prestatu dute:

- Leire Paz (biologian lizentziatua)
- Tomas Aranburu (nekazaritza-ingeniari teknikoa)

II. INFORMAZIOA

II.1. FORMULARIOA. URRIAREN 16KO 211/2012 DEKRETUAREN V.ERANSKINA

(PDFn formatoan erantsitako dokumentua).

II.2. FORMULARIOAREN MEMORIA OSAGARRIA.

(Ondoren datorrena).

III. PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA


Kapitulu honek Alegiako udalerrriaren ingurune fisiko eta sozialaren azterketa xehatua jasotzen du.

III.1. PLANAREN JARDUN-ESPARRUA ETA KOKAPENA

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren jardura-esparrua Alegiako udalerrri osoa da, 7,75 km² inguruko azalera duena. Gipuzkoako Foru Aldundiko 1: 5.000 kartografiako NRIII, NRIV, NQI eta NQII orrialdeetan azaltzen da, 30TWN77 10x10 km-ko UTM laukian.

Alegiako udalerrria Gipuzkoako ekialdean kokatzen da, Tolosaldeako eskualdean. Iparraldean Tolosako udalerriarekin partekatzen ditu mugak; mendebaldean Tolosako eta Ikaztegietaiko udalerriekin; hegoaldean Orendaineekin eta Amezetarekin; ekialdean, berriz, Tolosako Bedaio auzoarekin eta Altzoko udalerriarekin.

Itsas mailaren gainetik 89 m-ra dago. Donostia hiriburutik 30 km-tara.



1. irudia: Alegiako udalerrriaren kokapena.

III. 2 OROGRAFIA^{1,2}

Morfologiaren ikuspegitik bi eremu ezberdin bereizi daitezke:

- Ibarretako eremuak, Oria eta Amezketa ibaien ibar estuek osatutakoa; bertan kokatzen dira egoitzetako eta industriadetako hiri-lur gehienak;
- Gainerako lurraldea, erliebe menditsua ibai-egituraketak moldatu duena, malkartsua, gehienetan basogintzara zuzendutakoa; ibaiartetan eta orografia lagungarri den tokietan baserrietako jardueri lotutako larreak eta laborantzak tartekatzen dira.

Udalerriko kota altuena Madariagagainen aurkituko dugu, 590 m-tan, ipar-mendebaldeko muturrean, eta kota baxuena Oria ibaian, ipar-ekialdean, Tolosako mugan, itsas mailatik gaineko 89 m-tan, lehen aipatu bezala.

Udalerriko orografia hobeto ezagutzeko, bere azalera lurzoruak duen maldaren arabera sailkatu eta malda-tarte bakoitzaren azalera kalkulatu da:

Malda tardea	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa
<%10	41,5	%5,4
%10-20	61,6	%7,9
%20-30	105,5	%13,6
%30-50	331,4	%42,8
>%50	235,1	%30,3

Malda txikiko lurrak ez dira Alegian ugariak, batik bat ibarretara mugatzen direlako. **1.1: Orografia** planoan ikus daitekeenez, lurzoru hiritar eta hiritargarriaren barruan kokatzen dira orokorrean, hirigintzarako proposenak baitira.

Haranen erdi alturako lurretan klase guztietako malda-mosaiko bat agertzen da, malda ertainak (%20-50) beti ere nagusi direla, udalerraren azalaren erdia baino gehiago okupatuz. Bestalde, esanguratsua da toki hauetan malda altuek (>50) duten hedapen zabala, higadura arrisku handiko eremuak izanda. Malda altuenak ordea, %75etik gorakoak, Udalako, Epeleko eta Murugaineko inguruetara mugatzen dira batik bat, nahiz eta udalerrri osoan han-hemenka ere agertzen diren.

III. 3 EZAUGARRI GEOLOGIKOAK³

Alegiako udalerrria Euskal-Kantauri mendilerroan dago, Euskal Arkuaren barruan. Ikerketa eremua honako gai litologiko hauek osatzen dute:


¹ Geoeuskadi. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura.

² Gipuzkoako Foru Aldundiko LIDAR datuak.

³ Euskal Herriko Mapa Geologikoa (1:200.000), 1991. Energiaren Euskal Erakundea (EVE).

Unitate litologikoak	Garaia	Iragazkortasuna	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa
Marga gris ilun eskistotsuak kararri hareatsuzko tarteketarekin	Goi-Kretazeoa	baxua, pitzaduragatik	374	%48,2
Marga eta kararri hareatsuen txandaketa	Goi-Kretazeoa	ertaina, pitzaduragatik	326	%42
Harearri silizetsu eta lutiten txandaketa	Kretazeoa	baxua, porositateagatik	36	%4,7
Ofitak	Triasikoa	iragazkaitza	24	%3,1
Alubioi eta alubioi-kolubioi metaketak	Koaternarioa	ertaina, porositateagatik	6	%0,8
Harri bolkanoklastikoak	Goi-Kretazeoa	ertaina, porositateagatik	5	%0,7
Kalkarenita bioklastiko geruzatuak marga eta margakararren tarteketa	Behe-Kretazeoa	ertaina, pitzaduragatik	2	%0,2
Kararri urgondar masiboak edo geruzapen urrikoak	Behe-Kretazeoa	ertaina, pitzaduragatik	0,7	<%0,1
Lutita karetsu grisak eta marga hareatsuak	Behe-Kretazeoa	baxua, pitzaduragatik	0,6	<%0,1


Bestalde, Alegiak interes geologikoko puntu bat du, 'Tolosako autobideko Cofre eta Chevron erako Goi Kretazeoko tolesak' izenez ezagutzen dena. Marga eta kararrietan eraturako tolesdura sistema dezimetrikoa da, bi puntuz osatua dagoelarik. Horietako bat udalerriko mugen barruan aurkitzen da, ipar-ekialdean, N1 errepidearen ezkerretara.



2. irudia: Alegiako ezaugarri geologikoak.

III. 4 EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA^{4,5}

Litologia, orografia eta klima bezalako eragileek lurzoru motak baldintzatzen dituzte. Alegia udalerriko lurzoru gehiena (azalera guztiaren %90a) 'lubisol ortiko' motatakoa da. Lubisolak malda dagoen tokietan eta urtaro heze eta lehorak dituzten tokietan garatzen dira eta lurrazaleko horizonteen eta lurrazal azpikoen artean egitura-kontrastea erakusten dute behekoak buztin alubialez aberastuta baitaude. Azpimota ortikoan lurzorua, azido edo deskarbonatua, ondo garatuta dago eta ezaugarri nagusia oso harritsu izatea du. Erabilera ahalmenaren aldetik lurzoru hauek erabilgarritasun oso urritik oso altura doaz, maldaren arabera gehienbat (zenbat eta malda handiagoa, orduan eta sakonera eta erabilgarritasun mugatuagoa).



3. irudia: Alegiako lurzoru motak.

Honen harira, Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapan azaltzen den informazioa eguneratuz (2013ko ortoargazkia interpretatuz), Alegian 6 lurzoru mota ezberdintzen dira, ahalmen agrologikoaren arabera:

⁴ Geoeuskadi. Datu Espazialen Azpiegitura. Eusko Jaurlaritzak.

⁵ Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa, 1987. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Mota agrologikoa	Deskribapena	Azalera (ha)	Udalerriko zenbatekoa
II	Nekazaritzarako eragozpen gutxi duten alubioi zabaleko lur sakonak	4,7	%0,6
III	Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurak	3,1	%0,4
IV	Malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20 baino gutxiagoko malda duten lurak, mendi-hegaletan lantzeko lursailen mugan daudenak	11,7	%1,5
VI	%20-35 bitarteko maldetan ematen diren, eta beraz, lantzeko zailak diren lurak, iraunkortasunez larreetarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik	105,4	%13,6
VII	%35 baino malda handiagoko lurak, baso lanerako baino erabili ezin daitezkeenak	566,4	%73,1
VIII	Nekazaritzarako balio ez duten lurak: gune hiritartuak eta ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak	83,7	%10,8

Aurreko taulan ikusten den bezala, udalerrriaren lurzoru gehiena VII. motan sailkatzen da, baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurri dagokiena. Bestalde, nekazaritzarako ahalmen handienerako lurak (II eta III motakoak), udalerrian azalera txikiena hartzen dutenak dira: Oria eta Amezketa ibaien ibarretan kokatuak, azken hamarkadetan gehien murriztu diren motak dira, etxebizitza, komunikazio-azpiegitura edota bestelako instalazioekin okupatuak agertzen baitira gaur egun. Hauek, nekazaritzarako balio ez duten lurren motan (VIII) sailkatzen dira eta udalerrriaren azaleraren zati nabarmena hartzen dute.

Bestalde, Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAP-k 'nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua' kategoriarean udalerriko 10,5 ha eskas baino ez ditu sartzen. Azalera hau lursail zati txikietan banatzen da, udalerrriaren zati lauenetan sakabanatua.

Mota agrologikoak **1.2: Lurzoruen ahalmen agrologikoa** planoan kartografiatu dira.

III. 5 HIDROLOGIA⁶

Sare hidrografikoa⁷

Alegia Oria Unitate Hidrologikoaren baitan kokatzen da. Uraren Esparru Zuzentaraua ezartzeko txostenen arabera, unitate hidrologiko (UH) hau, EAE eta Nafarroa artean gertatzen denez, Erkidego Arteko Arroen Mugapean (Kantauri Ekialdearen Mugape Hidrografikoan) dago eta Estua da erakunde eskuduna; Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez kudeatzen da.

Lurrazaleko urak, bi masatan bereizten dira: Oria-C udalerrriaren iparraldeko erdian eta Amezketa-A hegoaldekoan. Ibilguei dagokienez, Oria eta Amezketa ibaiak dira udalerria zeharkatzen duten garrantzitsuenak eta hirigunean dute beren elkargunea. Hauen ibaiadar apalago batzuk ere azterketa eremuaren barnean daude, hala nola, Txubiritxoerrika eta Arterrika, beste askoren artean.

⁶ Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia.

⁷ Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoa (1:100.000), 1996. Energiaren Euskal Erakundea (EVE).

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak egiten duen sailkapenaren arabera, Oria ibaiak 200 eta 400 km² (IV maila) bitarteko arroa du Alegiatik pasatzen denean, eta Amezketa errekek 50 eta 100 km² (II maila) bitartekoa; Txubiritxoerreka eta Arterreka ibilguk, berriz, 1 eta 10 km² (0 maila) bitarteko arroa dute.

Sare hidrografikoa **1.3: Hidrologia** planoan irudikatu da.

Uren kalitatea^{8,9}

Oriaren arroak antropizazio bortitza jasan du, N-1 inguruko lautada estuan batez ere. Errepide sarea eta herri guztietako urbanizazioak eta industrialdeak ibaiaren lurraldea murriztu egin dute erabat.

Ur-Agentziak duen EAEko uraren egoeraren jarraipenerako sareak estazio bat dauka Alegian kokatua, Amezketa ibaiaren (AMEZKETA II masaren) kalitatea kontrolatzeko, OAM117 estazioa; Alegiako udalerritik igarotzen den Oria ibaia, berriz, bi ur-masetan dago zatituta: ORIA V ur-masa, Amezketa ibaiarekin bat egin baino goragoko zatia, Legorretan dagoen estazio batek kontrolatzen du, ORI258 estazioak; Tolosan dagoen estazioa, ORI361 kodigoa duena, ORIA VI ur-masari dagokio.

Eskuragarri dauden azken txostenek ematen dituzten datuen arabera, hiru kasuetan egoera globala 'ona baino okerragoa' dela esan daiteke:

Erakuslea		ORI258 Oria V	ORI361 Oria VI	OAM117 Amezketa II
Erakusle biologikoak	Makroornogabeak	ona	oso ona	ona
	Fitobentosa	ona	oso ona	moderatua
	Arrainak	ona	ona	ona
	Egoera biologikoa	ona	ona	moderatua
Erakusle fisiko-kimikoak	IFQ-R indizea	oso ona	oso ona	oso ona
	Lehentasunezko substantziak (60/2011 ED, II. Eranskina)	gai	gai	gai
Erakusle hidromorfologikoak	Ibai habitata (IHF)	moderatua	moderatua	moderatua
	Eraldaketa hidromorfologikoak	moderatua	txarra	moderatua
Egoera ekologikoa / Potentzial ekologikoa		ona	ona	moderatua
Erakusle kimikoak	ph, %O ₂ , nitratoa, amonioa, DBO ₅ , DQO, PT, PO ₄ , IFQ, IGC, Prati	moderatua-ona-oso ona	moderatua-ona-oso ona	moderatua-ona-oso ona
Egoera kimikoa		ez da ona (merkurio maila)	ona	ona
EGOERA GLOBALA		ona baino okerragoa	ona baino okerragoa	ona baino okerragoa

⁸ Anbiotek & Cimera, 2013. Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV. Informe de resultados. Campaña 2012. URA.

⁹ Labaqua & Ondoan, 2013. EAEko ibaien egoera kimikoen jarraipena egiteko sarea, 2012. URA.

Oria VI ur-masa, Alegiako hirigunetik Tolosa aldera doan zatia, 'oso aldatutzat' izendatu da, ibaiertzak aldatuak, bideratuak eta andeatuak dituelako; horrez gain errepideek, baratzeek eta garapen urbanoek (etxebizitzek eta industrialdeek) ibaiertzen jabari publikoa okupatu dute erabat.

Beste bi ur-masetako ibaiertzak egoera hobean mantentzen dira, nahiz eta ibaiertzetako landaredi autoktonoa, haltzadi kantauriarra alegia, andeatuta edo ia desagertuta azaltzen den.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, halaber, estazio automatiko bat dauka Alegian kokatua, eta honako parametroen datuak jasotzen dira: pH, uraren tenperatura, eroankortasuna, uhertasuna, oxigeno disolbatua, materia organikoa, amonio eta ortofostatoak.

Alegian dagoen Oria ibaiko neurketa-estazioaren datuak 2011-2012 urte hidrologikoa								
Eguneroko batz bestekoa	pH	Uraren Tª (°C)	Eroan. (µS/cm)	Ox. Dis. (mg/l)	Uhert. (UNF)	Mat Org (m-1)	NH ₄ ⁺ (mg/l)	Ortofosfatoak (mg/l)
	7,8	15,3	505	10,67	22	5,5	0,18	0,11

Puntu hau ez da salmonidoentzat egokia, bai ordea ziprinidoentzat, tenperatura altua dela eta. Oxigenoa ez da salmonidoentzat mugatzailea, udan eskasia bada ere. Beste alde batetik, amonioa ez da arraintzat mugatzailea araudiak ezartzen duenaren arabera; hala ere, kontzentrazioa nahiko altua da, kutsadura-organikoa salatzen duelarik.

Amezketak ibaia eta Oria ibaia elkartzen diren puntuan, aldizkako estazioa mantentzen du Foru Aldundiak. 2012ko Txostenak zera dio: Amezketak ibaia Alegian salmonidoentzat egokitasuna erakusten du. Parametro guztiek balio gutxi gora-behera egokiak eman dituzte. Fosfato kontzentrazio nahiko altuak noizean behin baino ez dira erregistratu (gehienezko datua = 0,35 mg/l).

Lurpeko urak¹⁰

Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenak adierazten duenez, aztergai dugun esparrua lurpeko bi ur-masen gainean kokatzen da: Tolosa (ES013S000003), Ipar Antiklinorioko domeinu hidrogeologikoaren barne dagoena eta Arama (ES013S000011) Oizeko Sinklinorioa/Goi-Kretazeoa/Sumendi Konplexua domeinuan.

2. mailako ur-masak dira, hau da, iragazkortasun txikiko eta interes hidrogeologiko txikikoak, nahiz eta aprobetxamenduak izan dituen.

Lur gaineko hartuneak¹¹

Zona Babestuen Erregistroak giza kontsumorako lur gaineko hiru hartune identifikatzen ditu aztergai dugun esparruan: Kirrismi, Ekusu eta Berazuri. Languurrealdea auzoan kokatzen dira eta 'Alegiako 2. Sistema' hornitzen dute.

Hauetaz gain Alegiako udalerrian badaude beste iturburu, ur-biltegi eta bestelako hartuneak, **1.3: Hidrologia** planoan irudikatu direlarik guztien artean nagusiak.

¹⁰ Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.

¹¹ Kantauri Ekialdearen Mugapen Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa.


Gainera, Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoaren arabera Elduain Unidate Hidrologikoaren barruan 'Otsabio' sektorea azaltzen da Alegiako udalerrriaren inguruan, Altzoko udalerriko lurretan zehazki. Sektore honek deskarga puntuak ditu Jaizkugaña bailaran, bi iturburu nabarmentzen direlarik: Arterreka 1 eta Arterreka 2; bi iturburuak +200 kotaren inguruan azaleratzen dira, Jaizkugaña ur-ibilguan, eta ur horniduraren 'Alegiako 1. Sistema' elikatzen dute.

III. 6 LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERA¹²

Landaredi potentziala eta lurzoruaren erabilera

EAEko Landaredi Sailen Maparen arabera Alegiako udalerriko landaredi potentziala lau multzotan bereiz daiteke:

- Haltzadi kantauriarra: ur-ibilgu nagusien inguruan.
- Baso misto atlantiarra: altitude baxueneko mendi-hegaletan, lurzoru sakonago eta ez hain garbituetan.
- Harizti kantauriarra: higadura mazaletan eta muinoetan, lurraldearen zati handiena hartuz.
- Pagadi azidofiloa: 600 m-tik gorako altueran.



4. irudia: Alegiako landaredi potentziala.

¹² Natura ondarea eta biodibertsitatea. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

Egun aurkitzen dugun landarediak, ordea, zerikusi gutxi dauka aipatutako potentzialarekin, izan ere gizakien jardueren ondorioz lurraldea erabat eraldatu baita:

Nahiz eta denboran zehar ukituak izan diren, naturalizat jo ditzakegun landaredi zati batzuk geratzen dira udalerriko esparruan sakabanaturik. Guztira 190 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, udalerraren %25a.

Aldiz, landaketa basoek 362 ha estaltzen dituzte, udalerraren azaleraren erdia gutxi gora-behera. Hauetan koniferoak (*Pinus radiata*, *Pseudotsuga menziensis*, *Larix sp.*), haritz amerikarra (*Quercus rubra*) eta sasi-arkazia (*Robinia pseudoacacia*) dira espezie erabilienak.

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ere lurraldearen zati nabarmena eraldatu dute larre, belardi, baratza, fruitarbolen landaketa, e.a. ezarriz jatorrizko basoak zeuden tokian. 126 ha hartzen dituzte, udalerraren azaleraren % 16a inguru.

Azkenik, azpimarragarria da artifizialdutako lurrek hartzen duten azalera. Katetoria honen barnean hiritartutako eta azpiegituretarako lurzorua, zapaldua edota eraldatua aurkitzen da eta hauetan ez dago landaretzarik edo izaera errudera lekoa da.

I.4: Lurzoruaren erabilera mapan hurrengo taulan agertzen diren unitateak kartografiatuta agertzen dira:

Landaredi unitateak	Azalera (ha)	Udalerraren zenbatekoa
Ur-ibilguak	5,8	%0,8
Ibai basoa: haltzadia	6,9	%0,9
Ibai baso andeatua	8,3	%1,1
Larre eta belardiak	111,0	%14,3
Sastrakadiak	16,0	%2,1
Hostozabalen baso natural gazteak	15,7	%2,0
Bertako baso eta heskaiak	169,1	%21,8
Koniferoen landaketak	260,3	%33,6
Hostozabalen landaketak	102,6	%13,2
Baratzak, laboreak, fruitondoak eta lorategiak	14,8	%1,9
Lurzoru artifizialdua	64,6	%8,3
GUZTIRA	775,1	%100

Interes bereziko landaredia¹³

Eusko Jaurlaritzako EAEko habitat mapak jasotzen duenez Alegiako udalerrian Europar Batasunaren intereseko habitatak (interes komunitarioko habitatak) estalitako 100 ha inguru dago, udalerriko azalera osoaren %11a. Identifikaturiko habitatak honako hauek dira:

¹³ Europako Nabitat Naturalen eta Nasafauna eta Nasaflorearen Nontserbaziorako 92/43/CEE Arteztarua (Habitat Arteztarua).

Kodea	Habitataren izena	Azalera (ha)	Udalerraren zenbatekoa
4030	Txilardi lehor azidofiloak	2,8	%0,3
6510	Altuera txikiko sega-larre txiroak (<i>Alopecurus pratensis</i> , <i>Sanguisorba officinalis</i>)	64,4	%8,3
91E0*	Haltzadien eta lizardien baso alubialak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	15,1	%1,9
9120	Pagadi azidofilo atlantiarrek, <i>Ilex</i> oihanpedunak, eta batzuetan <i>Taxus</i> -dunak (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>).	5,3	%0,7
9260	Gaztainadi zaharrak	0,4	<%0,1
GUZTIRA		100,9	%11,3

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira interes txikiagoko beste formazio batzuen alde (baso-berritzeak, larreak eta abar). EAEko natura babesten duen 2/2013 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela eta, formazio horiek, guztira 179 ha-ko azalera hartzen dutelarik, kontserbatzeko interesa duten landaredi eta habitaten artean hartu dira.

Azaldutakoa ***I.5: Interes bereziko landaredia*** mapan kartografiatu da.

Flora espezie mehatxatuak¹⁴

EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorriaren arabera, Alegiako Udal mugen barne babestutako bi espezie hauek aurkitzen dira:

Espeziea	Izen arrunta	Arriskuaren kategoria	Habitat mota
<i>Ilex aquifolium</i>	gorostia	Ardura gutxikoa	Basoak
<i>Carpinus betulus</i>	xarma	Galtzeko zorian	Baso alubialak

Azpimarratu behar da Alegiakoa dela EAEn agertzen den xarma edo *Carpinus betulus* espeziea mehatxatuaren populazio bakarra eta Nafarroako iparraldekoarekin batera, Iberiar Penintsula osoan ezagutzen diren bi populazioetako bat. Espezie berezi hau ageri diren 1 km²-ko laukiak, interesekotzat hartzen diren landaredi formazioekin batera ***I.5: Interes bereziko landaredia*** planoan irudikatu dira.

Espezie inbaditzaileak¹⁵

EAEko Flora Aloktono Inbaditzailearen Diagnosian Alegia dagoen UTM laukian hainbat espezie aloktonoren aipamenak jasotzen dira. Horietatik 10 espezie A kategoriakoak dira, hau da, inbaditzaile transformakorrak, beraz arriskutsuenak biodibertsitaterengan eragiten duten presioa dela eta. Hurrengo taulan jasotzen direnak dira:

¹⁴ Ihobe, 2010. EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorria. Eusko Jaurlaritza.

¹⁵ Ihobe, 2009. EAEko Flora Aloktono Inbaditzailearen Diagnosia. Eusko Jaurlaritza.

Espezia	Izen arrunta	Habitata
<i>Buddleja davidii</i>	tximeleten zuhaixka	arekak, ezpondak, lugorriak
<i>Conyza canadensis</i>		arekak, legardiak, lugorriak eta eremu irekiak
<i>Conyza sumatrensis</i>		arekak, lugorriak
<i>Cortaderia selloana</i>	Panpako belarra	arekak, ezpondak, iraulitako lursailak, sastrakak, sasiak
<i>Cyperus eragrostis</i>		ubideak, lubakiak, arekak, ibaietako harritzak
<i>Fallopia japonica</i>	banbu japoniarra	ibaiertzak, areka hezeak
<i>Paspalum dilatatum</i>		sega zelaiak, belardi hezeak, arekak
<i>Paspalum distichum</i>		belardi hezeak, ibaiertzak
<i>Robinia pseudoacacia</i>	sasi-arkazia	baso misto hezeak, harizti azidofiloen orde
<i>Sporolobus indicus</i>		arekak, zelaietako ertzak

III. 7 INTERESEKO FAUNA¹⁶

Eusko Jaurlaritzako datu baseak, Alegiako udalerrria barnean hartzen duen 10x10 km-ko UTM koadrikulan EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren 28 espezieen aipamenak jasotzen ditu:

Ezpezia	Izen arrunta	Arrisku maila*	Habitat nagusia
NARRASTIAK			
<i>Zamenis longissimus</i>	Eskulapioren sugea	IB	basoa, landazabala
HEGAZTIAK			
<i>Accipiter nisus</i>	gabiraia	IB	basoa
<i>Alcedo atthis</i>	martin arrantzalea	IB	ur-ibilguak
<i>Caprimulgus europaeus</i>	zata arrunta	IB	landazabala, sastrakadia
<i>Carduelis spinus</i>	tarina	IB	basoak
<i>Cinclus cinclus</i>	ur-zozoa	IB	ur-ibilguak
<i>Circaetus gallicus</i>	arrano sugezalea	B	sastrakadiak
<i>Circus cyaneus</i>	mirotz zuria	IB	sastrakadiak
<i>Corvus corax</i>	erroia	IB	orotarikoa
<i>Charadrius dubius</i>	txiritxo txikia	K	ur-ibilguak
<i>Dendrocopos minor</i>	okil txikia	IB	ibar-basoak, landazabala
<i>Dryocopus martius</i>	okil beltza	B	basoak
<i>Falco peregrinus</i>	belatz handia	B	harkaiztiak
<i>Falco subbuteo</i>	zuhaitz-belatza	B	basoak
<i>Hieraaetus pennatus</i>	arrano txikia	B	basoak
<i>Jynx torquilla</i>	lepitzulia	IB	landazabala
<i>Milvus milvus</i>	miru gorria	K	landazabala
<i>Pernis apivorus</i>	zapelaitz liztorjalea	B	basoak
<i>Riparia riparia</i>	uhalde-enara	K	ur-ibilguak

¹⁶ Natura ondarea eta biodibertsitatea. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ezpezia	Izen arrunta	Arrisku maila*	Habitat nagusia
UGAZTUNAK			
<i>Eptesicus serotinus</i>	baratz saguzarra	IB	harkaiztiak, eraikuntzak
<i>Felis silvestris</i>	basakatua	IB	basoak
<i>Mustela lutreola</i>	bisoi europarra	GA	ur-ibilguak
<i>Mustela putorius</i>	ipurtatsa	IB	ur-ibilguak
<i>Myotis nattereri</i>	Natterer saguzarra	B	leizeak
<i>Myoxus glis</i>	muxar grisa	K	basoak, baserriak
<i>Pipistrellus nathusii</i>	Nathusiusen pipistrela	IB	basoak
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	ferra-saguzar handia	K	kobazuloak, baselizak
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	ferra-saguzar txikia	K	basoak, kobazuloak

*GA: Altzeko arriskuan, K:Kaltebera, B: Bakana, IB: Interes Berezikoa.

Aurreko taulan agertzen denez, aipatutakoen artean espezie bat aurkitzen dat ‘galtzeko arriskuan’ kategorian sailkatua, 6 espezie ‘kaltebera’ kategorian, 7 espezie ‘bakana’ kategorian eta 14 ‘interes bereziko’-tzat jotzen dira. Galtzeko arriskuan dagoen espeziea, bisoi europarra (*Mustela lutreola*) globalki mehatxatua dagoen haragijale erdi-urtarra da eta bere habitat nagusia, hau da, ur-ibilguak, Lehentasunezko Banaketa-Eremu bezala izendatuta daude, hauen artean udalerrria zeharkatzen duten Ori ibaia, Amezketabaia eta Arterrekaren zatiak hartuz.

Aipatzekoa da, halaber, uhalde-enara (*Riparia riparia*), kaltebera kategorian dagoen hegazti espezieak, Alegiako hiriguneko ibai-hormak erabiltzen dituela habi bezala, Gipuzkoako bigarren koloniarik handiena osatuz (53 bikote 2007-2008ko erroldan)¹⁷.

III. 8 INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK

Onura Publikoko Mendiak¹⁸

Alegiako Onura Publikoko Mendiak (OPM) 243 ha-ko azalera du, ia udalerraren herena. Aldabatxikimendi parajeen kokatzen da (ikus 5. irudia) eta Gipuzkoako OPMen katalogoan ‘Aldabatxiki’ izenez eta 2.005.1 kodigoaz dago identifikatuta. Languarre aisialdi gunea honen barnean kokatzen da.


Barruti honetan hainbat landaredi mota –interes komunitarioko habitatak barne– azaltzen badira ere, landaketak dira gehienago osatzen dutenak (OPMen azaleraren %71a). Beraz, esan dezakegu gaur egun natur balioen aldetik interes nabarmenik ez duela, baina bai ordea, hauek sustatu eta berreskuratzeko potentzialtasun edo ahalmen handia.

¹⁷ Etxezarreta, I. 2010. Distribución y situación actual del avión zapador (*Riparia riparia*) en la Vertiente Cantábrica del País Vasco. *Munibe* 58:149-171.

¹⁸ Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Interes Naturalistikoko Eremuen Zerrenda Irekia¹⁹

Lurralde Antolamendurako Artezpideetan (LAA) barneratutako Interes Naturalistikoko Eremuen zerrenda irekian Alegiako udalerriko zati bat hartzen duen 'Araxes ibaiaren harana-Jazkugane eta Basabe' eremua agertzen da. Udalerriko hegoekialdeko muturra ukitzen du 8'5 ha-ko azalera hedatuz, eta interes naturalistikotzat jotzen da eremuak dituen balio botanikoengatik.



5. irudia: Alegiako Onura Publikoko Mendia eta naturagune babestuak.

Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua²⁰

Alegia udalerria zeharkatzen duen Oria ibaiaren eta honen ertzen zati handi bat ES2120005 Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE), eta beraz Natura 2000 Sarearen, barnean dago. Amezketak ibaiak Oria ibaiarekin bat egiten duen tokitik gorako zatia da, hain zuzen, udalerrian 8 ha-ko azalera hartzen duen lurrik.

Eremu honetan kontserbatu beharreko funtsezko elementutzat honako hauek hartu dira:

- Ibai korridore ekologikoa, igarobide ekologiko bezala duen funtzionaltasuna eta Natura 2000 Sarearen koherentzia eta konektagarritasunari egiten dion ekarpena.


¹⁹ Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura, Eusko Jaurlaritza.

²⁰ 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena.

- Ibai habitatak, *Alnus glutinosa* (haltza) eta *Fraxinus excelsior* (lizarra) espezieetako baso alubialak (910E* Kodea).
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*).
- Loina (*Parachondrostoma miegii*) eta arrain komunitatea.
- Ibaietako hegaztiak: ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) eta ibarretako beste espezieak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea²¹

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proposamenak (IKT, 2005) 'Ernio-Gatzume_Aralar_Izarraitz, R18: Aiako Harria-Aralar' lotura-korridorea, 'Araxes harana-Jaskugane-Basabe' lotura-gunea eta bien indargetze-eremuak irudikatzen ditu Alegiako azalera gehiena hartuz.



6. irudia: Alegiako kokapena EAEko Korridore Ekologikoen Sarean.

Bestalde, Korridore Ekologikoen Sareak udalerrian lotura ekologikorako bi eremu kritiko edo tentsio-gune antzematen ditu: N-1 autobidea (A-1) alde batetik eta aurreikusitako AHT-ren trazadura bestetik. Puntu hauek inguruko basa-animaliengan eragin nabarmenak izan litzakete, beren mugikortasuna, ehiza-eremua, populazioen arteko elkartrukatzeko genetiko eta abar aldatuz.

²¹ IKT SA, 2005. EAEko Korridore Ekologikoen Sarea. Eusko Jaurlaritzza.

III. 9 PAISAIA²²


Ikusmen arroak

‘EAEko Paisaiaren Kartografia’ (1990) eta bere balioespenean (1993) EAEko ikus-arroak zedarritu ziren. Ikus-arroak zonalde erlatiboki homogeneoak dira ikusmen irizpideei dagokienez eta elkarren artean interbisibilitate erlazioa mantentzen dutenak. Alegiako lurak 4 ikusmen-arrotan banatzen dira: ‘Alegia’ arroak udalerrri gehiena hartzen du; ‘Albiztur’ arroak zatitxo txiki-txikia iparraldeko muga; ‘Amezqueta’ arroak hego-mendebaldeko muturra hartzen du eta ‘Jazkugañe’ arroak, berriz, hego-ekialdeko muturra (ikusi 7. irudia)

Ikusmen arroa	Paisaia balioa	Egunerokotasuna	PBNK*	Azalera (ha)	Azalera (%)
Albiztur	4 – handia	egunerokoa	bai	1,5	%0,2
Alegia	1 – oso apala	oso egunerokoa	ez	598,9	%77,3
Amezqueta	5 – oso handia	egunerokoa	ez	67,6	%8,7
Jazkugañe	3 – ertaina	egunerokoa	bai	107,1	%13,8

*PBNK: EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoa.

Egunerokotasunak, arroak biztanleri eta jardura ekonomikoetarako guneetatik zein komunikabideetatik ikusgai edo oso ikusgai direla esan nahi du.



7. irudia: Alegiako paisaia unitateak (legendakoak) eta ikusmen arroak (horiz).

²² IKT SL & Paisaia, 2005. EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoa. Aurreproiektua. Eusko Jaurlaritza.

Aipatutako lanean, gainera, ikusmen eragin negatibo eta positibo nagusiak adierazten dira: Alegiako arroaren kasuan errepidea, trenbidea, argindar-linea eta errepikagailu edo antenak azpimarratzen dira eragin negatiboren iturburu bezala eta ur-ibilguak eragin positiboaren iturburu bakar bezala; hau dela eta, arro honen paisai balioa oso apala dela iritzi da. Albiztur eta Amezketako arroak, ordea, paisai balio handia eta oso handia dutenez, EAeko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta daude.

Paisaia unitateak

Eusko Jaurlaritzako Alegiako udalerrian honako hauek bereizten dira:

Paisaia unitatea	Eremu geomorfologikoa	Erliebea	Azalera (ha)	Azalera (%)
Baso-mosaikoa	flubiala / karstikoa	malkartsua / menditsua	226,3	29,2
Baso-landaketak	flubiala	malkartsua	113,1	14,6
Belardiak eta Atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza	flubiala	malkartsua	106,2	13,7
Hosto erorkorreko hostozabalak	flubiala	menditsua	40,9	5,3
Basoko nekazaritza-mosaikoa	flubiala	uhindua	288,7	37,2

Herrigunea eta komunikabide azpiegiturak 'belardiak eta Atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza' paisaia unitatearen barnean, honen azalera ia osoa hartuz, hedatzen da.

III. 10 KULTUR ONDAREA²³

Jarraian Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentrotik esandakoaren arabera, Alegian kokatzen diren intereseko kultura elementuak eta guneak azaltzen dira:

Izena	Mota
Kristo Santuaren Baseliza	Monumentua. Ustezko gune arkeologikoa.
Zubizaharra	Ondare arkitektoniko kalifikatua (babes zorrotza). Santiago bidea.
Gurutze Santuaren guruztokia	Ondare arkitektoniko kalifikatua (oinarrizko babes). Santiago bidea.
Pikotak, gurutzeak eta iturriak	Ondare arkitektoniko kalifikatua. Santiago bidea.
San Juan Bataiatzailearen Eliza	Ondare arkitektoniko inbentariatua. Ustezko gune arkeologikoa.
Gorotzenea baserriko garaia	Ondare arkitektoniko inbentariatua
Udaletxea	Ondare arkitektoniko inbentariatua
Beloztegi baserria	Ondare arkitektoniko inbentariatua
Urzuriagako San Migeleko ola	Ustezko gune arkeologikoa
Azterreka Bekoa errota	Ustezko gune arkeologikoa
Alegiako errota	Ustezko gune arkeologikoa
Beiztin (Begiristain) baserria	Ustezko gune arkeologikoa

²³ Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.

Aipatutakoez gain, honako ondasun higiezin hauek Udal mailan babestuak izateko proposatuak izan dira: Alde Zaharreko San Juan Kaleko 3 (Alkiza Etxea), 12, 23, 25 (Basabe Etxea), 27, 47, 64 (Abade Etxea), 65, 73, 75 (Kiskelenea), 79, 81, 83, 85, 87, 89 eta 91 zenbakiak, Aristizabal baserria, Azterreka errota eta Iparraldeko Trenbideko geltokia eta biltegia.

III. 11 INGURUMEN-PROZESU ETA ARRISKUAK²⁴

Uholde-arriskua²⁵

Kantauri ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren eremuan uholdeei buruzko azterketa ugari egin dira. Egun 500 biztanle baino gehiagoko EAeko hirigune ia guztietako uholde-arriskuen mapak daude, etengabeko berrikusketari lotuta dauden arren. UR-Agentziak uholde-arriskuei buruz jasotako datuak **I.6: Ingurumen arriskuak** planoan azaltzen dira. Hiru arrisku kategoria ezberdin ezarri dira, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldia duten uholde-orbanen arabera.

Alegiako hirigunea ibaien ibarretan garatu denez, uholde-orbanak hiri-lurzorua eta lurzoru hiritargarrian diren esparruetan nabarmen hedatzen dira. Beraz, hautabide ezberdinak baloratzean kontu handiz begiratu beharreko gaia da hau.

Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Eskura dagoen hidrogeologia informazioarekin, material litologikoen iragazkortasunari buruzkoarekin batez ere, esan daiteke udalerrriak ezaugarri onuragarriak dituela akuiferoen urrakortasunari dagokionez orokorrean. Bi eremu soilik identifikatu dira urrakortasun 'handia' edo 'oso handia' dutenak: 1 ha inguruko lur-zatia iparraldean, Tolosarekin mugan, eta 13 ha-koa hego-ekialdeko mugan.

Eremu hauek **I.6: Ingurumen arriskuak** planoan azaldu dira.

Higadura arriskua duten eremuak

Higadura arriskua duten eremuak identifikatzeko Nekazaritza eta Basogintzarako LAP-k 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' kategorian dauden Alegiako eremuak, %50 gainditzen duten maldak eta geomorfologikoki ezegonkorak diren lurrak (higadura aktiboko guneak, aireratze-orbainak eta gainazaleko irristatzeak) aukeratu dira. Emaitzak **I.6: Ingurumen arriskuak** planoan kontsultatu daitezke, hautabideak baloratzean kontutan hartzeko.

Udalerriko orografia malkartsua dela eta, lurzoru hiritarrezinaren zati handia arrisku honen eraginpean dago. Hau murrizteko, egur-landaredia, hau da baso-estaldura, mantentzea garrantzitsua da.

²⁴ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzia.

²⁵ Uholde-Arrisku Handiko Eremuen (U.A.H.E.) uholde-arriskugarritasun eta - arriskuaren mapak, 2014. UR-Agentzia.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua²⁶

IHOBERen 'Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuen inbentarioa' informazio iturri gisa hartuz, udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 17 partzela daude, guztira 2,75 ha-ko azalera hartzen dutenak. Partzela hauek **1.6: Ingurumen arriskuak** planoan aurkeztu dira.

Zarata²⁷

Alegiako udalerrian orokorrean eta zehazki biziguneetan eta intereseko naturaguneetan hots-kutsadura eragin dezaketen iturri nagusiak ibilgailuen zirkulazioak, trenak eta industria jarduerak sortutakoak dira. Aipatutako iturriek sortutako zarata maila buruzko informazioa, N-1 errepideari dagokiona baino ez dago eskuragarri.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak N-1 errepidea Zarataren Mapa Estrategikoen baitan kontutan hartzen du, eta 2008. urtean honako esposizio mailak kalkulatu ziren Alegiako kasuan zehazki:


Zarata jasaten duen biztanle-ehunekoa				Zarata jasaten duten lurzoruen ehunekoa
Leguna >55db(A)	Larratsaldea >55db(A)	Lgaua >50db(A)	Lden >55db(A)	Lden >55dB(A)
36,07 %	33,86 %	34,05 %	45,29 %	32,7 %

Zarata jasaten duen biztanleriaren ehuneko hauek, N-1 errepideari atxikitutako udalerririk guztietatik (Idiazabaletik hasita Iruneraino) altuenetakoak dira, Tolosa eta Billabonaren atzetik.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAeko hots-kutsadurari buruzkoak, "udalaren lurralde-eremuaren barruko area akustikoa edota area akustikoak zedarritzatzea eta onartzea, betiere, udalaren planeamenduan aurreikusitako egungo erabilerak oinarri harturik" udalerriei dagokiela ezartzen du (6. artikulua).

²⁶ 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.

²⁷ Labein, 2008. Gipuzkoako Aldundiaren Errepide Sareko Zarataren Mapa Estrategikoak 2002/49/CE Arteztarua – I Fasea. Gipuzkoako Foru Aldundia.



8. irudia: Gipuzkoako Aldundiaren Errepide Sareko Zarataren Mapa Estrategikoak Alegiarako irudikatzen dituen zarata mailak.

Airearen kalitatea²⁸

EAEko airearen kalitateari buruzko txostenek diotenez, azken urteetan airearen kalitate oneko edo onargarriko egunen proportzioa oso altua izan da Oria-Garaiko eskualdean:


Airearen kalitatea 'ona' edo 'onargarria' izan duten egunen ehunekoa									
Urtea	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Egunak (%)	88,7	86,3	86,8	95,6	96,7	99,2	97,0	99,2	99,2

Udalerrian bertan kontrol estaziorik ez dagoenez (Tolosan kokatzen da gertuena), isurpen-foku zehatzak oharkabean pasa daitezke, ibilgailuen zirkulazioan edota industria aktibitateetan sorburua dutenak esaterako.

²⁸ EAEko Egurats Kutsaduraren eta Aire Kalitatearen Estatistika, 2012. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

III. 12 INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK

Ingurune fisikoaren ezaugarrien eta harrera ahalmenaren osotasunezko analisisa egitean 5 ingurumen unitate homogeneo bereiz daitezke Alegiako lurretan: uholde arriskupeko lurrak, lur hiritartuak, nekazaritza eta abeltzaintzarako lurrak, malda ertaineko mazelak eta malda handiko mazelak.



9. irudia: Alegiako udalerrian bereiz daitezkeen ingurumen unitate homogeneoak.

1. Uholde arriskupeko lurrak

Oria ibaiari eta Amezketa ibaiari loturiko 10 eta 100 urteko birgertatze aldiko urperagarritasun orbanaren mugen barnean dauden lurrei dagokie, hein handi batean guztiz hiritartua daudelarik. Antropizazio maila oso altua jasaten duen unitatea izanda ere, aipagarria da hiriguneko ibaiko hormetan kokatzen dela uhalde-enara, kaltebera kategorian sailkatutako espeziearen, Gipuzkoako bigarren koloniarik handiena. Landaredia mantentzen den ibai-ertzetan, bestalde, kontserbazio egoera ez da egokia orokorrean; hala ere, tarteka, 'haltzadi eta lizardien baso alubialak' interes komunitarioko habitat lehenetsia azaltzen da. Gainera, Oria Garaia KBEn Alegiako mugak unitate honen barnean sartzen dira.

Jarduketa irizpidea unitate honetan uren kalitatea hobetu edo mantentzea, ur-ibilguen eta hauen ertzen okupazioa ekiditea eta arrisku naturalek eragindako kalteak murriztea izango da.

2. Lur hiritartuak

Aurreko unitatearen bi aldeetara azaltzen da eta hiriguneko eta industriaguneetako uholde arrisku handia ez duten lurri dagokio (urak hartzeko urteko probabilitatea <%1). Bi unitate hauen artean kontzentratzen dira udalerriko hirigintza eta industria garapen eta komunikazio azpiegitura (errepidea, trenbidea) nagusiak.

3. Nekazaritza eta abeltzaintzarako lurrak

Baserriak, baratzeak eta frutarbolak eta larreak dira unitate honen ezaugarri nagusia, hau da, landazabal motatako paisaia. Udalerriko iparraldeko muturrean izan ezik, gainontzeko lur hiritarrezinean sakabanatuta agertzen da, gehienbat %50tik beherako maldetan. Unitate honetan presio antropikoa altua izan arren, lurzorua erabilera mota nagusia 'altuera txikiko sega-larre txi-roak' interes komunitarioko habitata azaltzearen eragilea da.

Nekazaritza eta Basogintzako LAP-ren 'trantsiziozko landa-paisaia' kategoriaren definizioarekin bat dator. Hau dela eta, lurzoruen ahalmen agrologikoa eta abeltzaintza jarduketak, zein hauekin bateragarriak diren eta landa-ekosistemen eta paisaiaren kontserbazioa bermatuko duten jarduketak mantentzea du irizpide.

4. Malda ertaineko mazelak

Basoz estalita dauden %30-50 bitarteko maldak dituzten lurrak dira. Irisgarritasunaren aldetik malda hauek oztopo handiegirik jartzen ez dutenez, basogintza erabilera dute lur hauek, unitate honetan azaltzen den bertako landaredia tokirik zailenetara mugatua dagoelarik. Nahiz eta unitate honen antropizazio maila oso altua izan, hautemate orokorra naturaltasunarena da, basoak nagusi direlako. Bertan kokatzen den Languarreko aisialdi guneak, izan ere, herritarrak ingurune naturalarekin kontaktuan jartzea ahalbidetzen du.

Higadura arrisku ertaina daukanez, landaketarako basoak unitate honetan gertatuko lirarteke.

5. Malda handiko mazelak

Basoz estalita dauden %50tik gorako maldak dituzten lurrak dira, higadura arrisku handienekoak. Azalera gehiena basogintzarako erabiltzen den arren, unitatearen irisgarritasun zaila dela eta, honetan aurreko unitatean baino bertako basoko orban handiagoak azaltzen dira eta hauen artean aipatzekoak dira 'Araxes ibaiaren harana-Jazkugane eta Basabe' Interes Naturalistikoko Eremuaren Alegiako zatiaren barnean dagoen pagadia eta *Carpinus betulus* Zerrenda Gorriko espeziearen EAEko zuhaitzi bakarra.

Unitate honetan irizpidea kontserbaziora zuzendutako baso iraunkorra mantentzea izango da.

IV. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Kapitulu honetan Alegiako HAPOk antolatutako esparruan eragina duten lurralde-plangintza eta arloko planak identifikatu eta hauetan jasotako ezarpen eta irizpide nagusiak laburbilduko dira.

IV. 1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK²⁹

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak edo Gidalerroak (LAA). Artezpide horiek EAeko *“lurraldean jarduten duten eragileen jarduera ekonomikoak eta sozialak bertan kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak formulatzeko eta gauzatzeko erreferentzia-esparrua eraikitzea”* dute helburu. Hemendik abiatuta eta ingurune fisikoa oinarri eta euskarriztat hartuta, LAA-ek Lurralde Antolamendurako Eredua osatzen duten proposamen integratuen multzo bat eskaintzen dute, eta aipatutako prozesu horiek bideratzeko eta erregulatzeko irizpide eta arauak finkatzen dituzte.

Antolamendu Kategoriak ingurune fisikorako Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute eta lurraldea sektore edo arlo homogeneotan zonabanatzen. Arlo hauek harrera-ahalmenaren arabera definitzen dira eta bakoitzari erabileren arautze espezifikoak aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeko matrizea). Honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Erabilera-bokazio definitu gabea
- Lurrazaleko uren babesa

LAA-ek diote *“garapen-plangintzak (Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak eta abar) LAAetan ezarritako Antolamendu Kategorien izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazio bat ezarriko du Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzorura. Aztergai den zonako berezitasunen arabera, azpikategoria gehigarriak ezar daitezke”* Eta ondoren gehitzen dute garapen plangintzak: *“erabilera eta ihardueren arautze espezifikoagoa ezarri ahal izango du Antolamendu Kategoria bakoitzean, beti ere LAA hauetan izaera orokorrez araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza partikularrak kontuan hartuta”*.

Gainera, Antolamendu Kategoriekin batera, gainkarga batzuk ere definitu ziren, jarduera jakin batzuk egitea baldintza dezaketen lurraldeko arrisku edo ezaugarri berezi batzuei buruzkoak:

- Akuiferoen urrakortasuna
- Eremu higakorrek
- Uholde-joerako eremuak

²⁹ Administrazio eta Lurralde Plangintza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

- Natur Espazioak eta Biotopo Babestuak

LAA-ek Udal Antolamenduan zuzenean aplikatuko diren zenbait zehaztapen lotesle ezartzen dituzte:

- Lurrazaleko uren tratamendua: ibilguen babeserako behin-behineko neurri batzuk ezartzen dira.
- Lurzoru hiritarrezinean etxebizitza familiabakar edo familiabikoak eraikitzeke debekua, nekazaritza-ustiategiari loturik daudenean izan ezik.
- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintzaren gehienezko muga zenbatekotzea, behin-behineko izaeraz.
- Udal antolamenduak erauzketa jardueren eraginpean dauden eremuak zedarritzeko beharra.

Gainera, LAA-ek Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak idazterako orduan erreferentzia izango diren beste zehaztapen batzuk ere ezartzen dituzte. Ildo honetan, LAA-en 20. atalean, Jardutze-Eremu edo Eremu Funtzionalak (EF) zedarritzen dira, EAE eta udalerrien arteko eskala moduan. Alegia, Gipuzkoako beste 28 udalerrirekin batera, Tolosa (Tolosaldea) EF-ren zati da.

IV. 2 TOLOSA (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ZATIKAKO PLANA³⁰

LAA-en garapen plan bezala, LZP-ek hiri antolamenduak uztartzen dituzte haien zehaztapen berdinetan, existitzen direnetan aldaketak eragin ditzaketelarik.

Tolosaldeako LZP-k 2013ko azaroan jaso zuen hasierako onarpena (EHAA, 214. zk.). LZP-k eremu funtzionalerako lurralde eredu bat proposatzen du. Hau garatzeko tresnen estrategiak eta programak (Udal Hirigintza Plangintza eta plan bereziak funtsean) eta Arloko Planak orientatzeko helburuarekin, eragiketa estrategikoak adierazten ditu.

Alegiako udalerraren kasuan zehaztapen hauek egiten ditu:

“1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA.

- *Udalerrian babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LZPren zehaztapenei jarraiki.*
- *Ingurune fisikoa antolatzeko kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahalmenaren arabera definitzea eta arautzea, LZPan edota LAAetan ezarritako irizpideei jarraiki.*

2. BIDE AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA.

Araudi honetako 27. eta 28. artikulua kontuan hartuta:

- *Tolosa eta Alegia arteko hiri jarraitutasuna berreskuratzeko beharrezko lurzoru erresebak eta antolamendu aurreikuspenak.*
- *Hiri bide nagusiak eta Benta Haunditik zehar Tolosarekin lotzekoak hiri zentraltasuneko ardatz bihurtzea, edo hiriarteko ardatz bestela, lurraldearen ahalmenaren arabera.*
- *N-1 errepide zaharrari dagokion Alegia eta Ikaztegieta arteko bide tartea hiriarteko artikulazio-ardatz bihurtzea, betiere lurraldearen ahalmenaren arabera.*

Horrenbestez, ondoren adierazitako proposamenen antolamendua lehentasunezkoztat jo da:

³⁰ Eletxigerra & Lonbera, 2012. Tolosaldeko Eremu Funtzionalerako Lurraldearen Zatiko Plana. II. Liburua: Antolamendu Arauak eta Udal Antolamenduaren gaineko eraginei buruzko agiri osagarria. Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Autobidearen goiko bidea zabaltzea eta behekoa tokiko sarbide sare nagusian integratzea, eta, hala, oinezkoentzako eta bizikletazaleentzako bide funtzionala egitea, eta ingurumenaren aldetik duina.

3. TRENBIDE AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA.

- Trenbide Sare Berria egiteko beharrezko erreserbak.

4. ZERBITZU AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA.


- LZP honek barne hartutako arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.

6. BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA.

- Bizitegitarako lurzorua eskaintza kuantifikatzea LZParen xedapenen arabera.
- Sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzorua antolamendu, sustapen eta hirigintza-kudeaketarako aurreikuspenak, Alegiako udalerrira politika horretarako intereseko udalerritzat jo baita.

8. EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA.

- Ekipamenduak eta espazio libreak landa zonetan eta ingurune naturalean.
- Antolatzea, Albizturko udalarekin batera, Intxurreko aisialdi eta atsedenerako eremua.
- Udalerriri dagokion ingurumen ibilbideen sarea.”



10. irudia: Tolosaldeako Lurraldearen Zatikako Planak Alegiarako proposatzen duen lurralde eredua.

IV. 3 LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LAP)

IV.3.1. EAeko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana³¹


Ibai eta erreken ertzak antolatzeko LAP isurialde kantauriarrari dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin-betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua Gipuzkoako eta Bizkaiko ur-ibilguten bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.

³¹ Lurralde Antolamendu eta Plangintza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

LAP honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagaitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Ingurumen-osagaiari dagokionez, Alegian hiru kategoriako ertzak aurki daitezke (11. irudia):

- **‘Ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak’**: Oria ibaiaiko hiru tartetan eta Amezqueta ibaiaiko eta Arterreka erreka tarte banatan azaltzen dira, guztira 3.155 m luzerako ertzak hartuz. Hauetan araudiak honako hau dio: *“Ertz horietan gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean. Era berean, klimaxerantz bilakatu nahi da, esku-hartze birsortzaile bigunen bitartez. Edonola ere, landaredi baliotsuari eusteko ahalegina izango da.”*
- **‘Leheneratzeko premia duten eremuak’**: 476 m-ko tarteak Oria ibaian, udalerriko iparraldean zehaztu da. Zera dio araudiak: *“Ertz horietan, hondakindegia eta zaborteak agertzeagatik, edo ubideratzeak eta beste obra batzuek aldatu izanagatik, degradatuta dauden enklabeak leheneratu eta berriztatuko dira, irizpide orokor gisa. Ingurumena hobetzeko jarduerak sustatuko dira, eta ibilguaren morfologia naturala leheneratzeko eta ur-bazterretako edo paduretako landaredia berrezartzeko esku-hartzeak bideratuko dira.”*
- **‘Lehentasuneko interes naturalistikoak duten eremuak’**: kategoria honetan 80 m-ko tarteak izendatu da Arterrekako ertzetan, udalerriko ekialdeko mugan, eta araudiaren arabera, ertz hauetan *“Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzean datza babeserako irizpide orokorra. Babes-eremu horretan, ingurunea aldatzea eragingo duen jardun oro debekatuko da”*.




11. irudia: Ibai eta Erreken LAP: ingurumen-osagaiaren arabera sailkatutako ertzak.

Osagai hidraulikoaren arabera Alegiako udalerrria zeharkatzen duen tartean, Oria ibaiari IV maila dagokio osagai hidraulikoari jarraiki, hau da, 200 eta 400 km² bitarteko arro isurlearen azalera duten ibai-tarteak. Amezketari ibaiari II maila dagokio, 50 eta 100 km² bitarteko arro isurlea, eta Txubiritxoerreka eta Arterreka ibilguak, berriz, 0 mailan daude ezarrita, 1 eta 10 km² bitarteko arroa, alegia.

Hirigintza osagaiaren arabera, berriz, LAP-k 'eremu garatuetako ertzak', 'azpiegiturek okupaturiko ertzak', 'garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak' eta 'landa-eremuetako ertzak' bereizten ditu Alegian (12. irudia) eta kategoria bakoitzarentzat honako gutxienezko erretiro hauek ezartzen ditu:

Maila	Eremu garatuetako ertzak		Azpiegiturek okupaturiko ertzak	Hirigintza garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak		Landa-eremuko ertzak
	Mugabanaketa-lerro definitua	Lerro ez definitua		Eraikuntza	Urbanizazio-plataforma	
IV	15 m	22 m	50 m	20 m	10 m	50 m
II	10 m	14 m	30 m	16 m	8 m	30 m
0	10 m	12 m	15 m	12	4 m	15 m



12. irudia: Ibai eta Erreken LAP: hirigintza-osagaiaren arabera sailkatutako ertzak.


Argitu behar da bai 11. bai 12. irudietan irudikatutakoa LAP honen 1998ko bertsioan jasotakoarekin bat datorrela eta harrezkero aldaketak egon direla, hala nola garai hartan landa-eremuetatik hartzen

ziren zenbait egun eremu garatuak dira, hau dela eta, kategoria honi dagokion araudiari men egin behar diote gutxieneko erretiroak direla eta.

Uholdeen prebentziorako, LAP-k lurzorua erabilerak eta uholde lautadaren eremu ezberdinetan ('urpean gera daitekeen zona' eta 'lehenasunezko fluxu-eremua') jardura hidrauliko eta hirigintzako esku-hartzeak ezartzen ditu. Irizpide orokor gisa, landa-eremuetan eta gaur egun hiritartuta ez dauden eremuetan berezko urperagarritasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira jorratuko eta ez da onartuko *"bideratze-lan berririk egitea, landa-lurzoruko hainbat eremutako uholde arriskua murrizteko helburu hutsez"*, ez eta hirigintzako erabilera intentsibo, eraikuntza-okupazio eta egitura-barneko elementurik, ibai-inguruneari dagozkion erabilerak salbu, eta dagoeneko urbanizatutako edota hirigintza aldetik neurri batean garatuetako eremuetan *"ahalegina egingo da lehendik dauden eraikinak eta hirigintzako erabilerak mantentzeko, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren"*.

Azkenik, antzinako zubi zaharrek edo kultura-intereseko beste elementu batzuk, oztopo hidraulikoa badira uholdeen prebentzioari begira, hauek babesteko ahalik eta ahaleginik handiena egitea eta bere kontserbazioarekin bateragarriak diren aukera edo irtenbide hidraulikoak garatzea proposatzen du LAP honek, Alegiako Zubizaharra (A-5 kodea) aipatzen duelarik.

IV.3.2. Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana³²



13. irudia: Nekazaritza eta Basogintza LAP-aren arabeko zonak erakusten ditu.

³² Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Nekazaritza eta Basogintza LAP-k behin-behineko onarpena dauka eta lurzoru hiritarrezinaren nekazal eta basogintza erabilerak erregulatzen ditu. Dekretu bidez deklaraturiko Naturagune Babestuak eta Natura 2000 Sareko gunek (Oria Garaia KBE, hain zuzen) eta Ibai eta Erreken LAP-k xeheatasunez antolatutako ur-ibilguen ertzak.

Beraz, Alegiako udalerrian LAP honek landa-lurzoruan hiru antolamendu kategoria bereizten ditu (13. irudia): 'nekazaritza-abeltzaintza eremua: trantsiziozko landa paisaia' (199 ha), 'nekazaritza-abeltzaintza eremua: balio estrategiko altua' (10,5 ha) eta 'basoa' (513 ha).

Kategoria bakoitzeko aplikazio arau-espezifikoak garatu dira, erabilera eta jarduerak erregulatzeko matrize batean jasotzen direnak. Honako hauek dira irizpideak:

Baso erabilera duten gunetan *“ekoizpen eta babes funtzioak elkarri lotuta”* daude. *“Arloetako administrazioek azterlan egokiak egiteko erantzukizuna izango dute, kasu bakoitzean zein baso-espezie den egokiena erabaki ahal izateko, ekoizpenaren beharrezan arabera eta lurzoruaren egoeraren baldintzen arabera (...).”* Nekazaritza-abeltzaintzako 'Balio estrategiko altua' azpikategorian *“Zona hauek nekazaritza sektorearen ikuspegi estrategiko batetik aztertzen dira. Beraz, haiek mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean”* eta 'trantsiziozko landa paisaia' azpikategorian *“lurzoruen gaitasun agerikoa mantentzen saiatuko da. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta haiekin osagarri diren eta nekazaritza paisaiak eta ekosistemak zaintzen direla bermatzen duten gainerako erabilerak mantenduko dira. Arau orokorra nekazaritzako azalera erabilgarria mantentzea izango da.”*

Udal-plangintzari dagokionez Nekazaritza eta Basogintza LAP-k honakoa zehazten du: *“Udal plangintzak kategoria eta azpikategoria bakoitzerako ezarritako esparruen mugaketak birdoitu ahal izango ditu, horretarako LAPeko zonakatzea baliatuta. (...) Halaber, udal plangintzak lurzoru bat babes berezikotzat jotzen badu, edo hirikoa edo urbanizagarri gisa sailkatzen badu – LAPeko arau eta protokoloei jarraiki egin behar da-, LAPen aldaketa automatikoa ekarriko du; eta LAPen antolamenduko esparrutik kanpo geratuko dira birsailkatu diren esparruak.”*

IV.3.3. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana³³


LAP honek behin-betiko onespina jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketarik zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketaren kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin.

LAP honek Alegia 'jarduera ekonomikoetarako lehentasunezko intereseko udalerririk' gisa sailkatzen du (14. irudia). Honen arabera dagokion eskualde-egiturarako LZP-ren lurralde-ereduari jarraituz, jarduera ekonomikorako lurzoruaren hirigintza-arloko antolamendu, kudeaketa eta sustapenerako politika ezartzen da:

- *“Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarrizko politika.”*

³³ Administrazio eta Lurralde Plangintza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

- *Zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzeko plan berezia, enpresak lekualdatzeko eta hutsik dauden espazioak jardura berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez.*
- *Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko plan berezia, egungo poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.*
- *Planean interes estrategiko orokorrekotzat hartutako guneetan jardura ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.”*



14 irudia: Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Planaren proposamenen laburpena.

Saltoki handien arautzeari dagokionez, LAP-k Alegiako udalerrria C kategorian sartzen du, proposamen hau egiten duelarik: 15.000 m²-ko azalerako gehieneko plataforma zelaitua eta eraikitako sabai-azalera 5.000 m²-koa gehienez.

LAP honek udal plangintza berrikusteko prozesuetarako, lurzoru kalifikazioari buruzko honako irizpideak proposatzen ditu:

- *“Gaur egun ‘industriarako’ edo ‘jardura ekonomikoetarako’ kalifikatutako lurzoruak ‘bizitegirako’ edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik alde aurretik eta dokumentu egoki bidez justifikatzen denean ezintasun tekniko, ekonomiko edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jardura ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzeko, dagokion aparkaleku-zukidurarekin hornituta. (...)”.*
- *“‘Industria-lurzoruaren’ edo ‘ekonomia-jardueretarako lurzoruaren’ hirigintza-kalifikazioa aldatu eta ‘bizitegi-lurzoru’ edo ‘zuzkidura-lurzoru’ gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatuz, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituran hiri-plangintzari ‘ekonomia-jardueretarako’ lurzoru berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskaera”.*
- *“Azkenik, LAP honek ‘ekonomia-jardueretarako’ kalifikazioa duten lurzoruak beste erabilera alternatibo batzuetarako birkalifikatzea aholkatzen ez dueneko lurzoru-eskuragarritasun*

txikiagoa duten (...) eskualde-egituretan (...) jarduera ekonomikoaren euskarri den lurzoru urria iraunarazteko asmoz, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehenetsuz ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratzea”.

IV.3.4. EAEn Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana³⁴

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. Aipatutako Dekretuak LAP-k eragindako lurzoruari buruzko zehaztapenak biltzen ditu, baita horien iraunaldia, berrikuspena eta aldaketa, jardueren erregimen juridikoa, trenbide ondoko guneen babesa eta gunek erabiltzeko eta bertan eraikitzeko baldintzak eta abar ere.


LAP-k Xedapen iragankorrean zehazten duenez *“1. Erabakietan aurreikusi bezala hirigintza antolamenduko egiterapideak nahitaez doitzeko lana, argitaratu egunetik harako urtebeteko epean burutu beharko da.” eta “2. Nolanahi ere, LAP indarrean jartzen denean planeamendua berrikusten ari diren udalek prozedura horren barruan egin beharko dute doitze hori.”*

Trenbide Sare Berriaren azpiegitura burutu ondoren LAP honek ‘Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra’ kalifikazio barnean egokitu behar diren esparruak zehazten ditu. Hala dio LAP-k Dekretuaren 18. artikuluan. Definizioa:

- *“3. Trenbide Sare Berriaren azpiegitura buruturik, trenbideko lur berdinketak hartutako lursailek, haren elementu funtzionalek eta ustiapen egokirako beharrezko instalazioek osatzen dute Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra, bai eta zortzi (8) metroko zabalerako eremu batek, hirigarri eta ez-hirigarri gisa sailkatutako lurzoruan, eta hiri lurzoruko bost (5) metroko beste eremu batek ere (...).*
- *4. Zubi, zubibide eta antzeko egitura eta obren kasu berezietan, obrek lurrarekiko eratzen duten proiektio lerro bertikala hartuko da kanpoko ertzatat. Egituraren euskarriek hartzen duten lurra jabari publikokotzat hartuko da kasu orotan.*
- *5. Tunelen kasu berezietan, jabari publikoko esparruak eta horren segurtasun esparruak zehazteko xedez, haien egituraren kanpoko lerroa hartuko da lur berdinketaren lerrotzat. Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra zehaztean, haien sarrera eta irteeraren aldameneko gunek baino ez dira hartuko jabari publikokotzat, irizpide geoteknikoen arabera segurtasuna bermatzeko moduko distantzia aldagarrian eta luzetara (‘LD’), kasu bakoitzean dagokion trazadurarekiko. (...).”*

Trenbide sare berriak Alegiako udal-plangintzari eragiten dio, izan ere Abiadura Handiko Trenaren (AHT) trazadurak udalerriko iparraldea zeharkatzen baitu. Aurreikusitakoaren arabera, Alegiari dagokion trazaduraren zati gehiena (1.500 m) lur-azpian eraikiko da tunelen bitartez, gainontzekoa, 172 m, 350 m, 100 m eta 100 m luzeko lau tarte izango dira, hauetako batean bi zubi eraiki behar izango direlarik.

³⁴ Garraioak. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzza.



15. irudia: EAEko eremuan Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planak Alegian aurreikusitakoa.

Aipatu behar da LAP-n aurreikusitako sare berriaren trazadura aldaketak egon direla. Aurreko irudian, halaber, AHT-ren eraikuntzaren ondorioz sorturiko betelanak eta lur-mugimenduak ikusgai daude (orban txuriak).

IV.3.5. EAEko Errepideen Lurraldearen Arloko Plana³⁵

EAEko Errepideen II. Plan Orokorra 2005-2016, azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuak onartua, hainbat jarduketa proposatzen ditu N-1 (A-1) errepidearen hobekuntzarako: azpiegitura berriak, edukiera handitzea, sarbideen berrantolaketa eta kontrola, galtzada bikoiztea, loturak egitea edota berrantolatzea, trazadura hobetzea eta plataforma handitzea, hiriko saihesbideak, ingurumen hobekuntza (ingurune hidrikoan integratzea, iragazkortasuna eta konektagarritasun ekologikoa, zarataren diagnostia eta zuzenketa).


Alegiako udalerria zeharkatzen duen errepide tartean jarduketa bakarra proposatzen da, errepideak ingurune hidrikoan integratzeko azpiprogramaren barnean: Ikaztegieta eta Tolosa bitartean, errepidea Oria ibaiaren ertzetan doa, tarte batean KBE-ren zati delarik, beraz azterketa proposatzen da ustekabeko isurketa-arriskuak zehazteko.

³⁵ Garraioak. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritzia.

IV.3.6. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana³⁶

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak (GBBLAP), 2013ko ekainean behin-betiko onarpena jaso duenak, Gipuzkoako bizikleta bideen oinarrizko sarea sortzea proposatzen du, gaur egun zati batean gauzaturuta dagoena. Oinarrizko sarearen helburua da hiri-izaerako eta hiriarteko eguneroko joan-etorrietan bizikleta eta oinezkoen erabilera integratzea eta, horrela, motorrik gabeko mugikortasuna indartzea eta sendotzea.

Gipuzkoako bizikleta bideen oinarrizko sareak izaera egituratzailea du, Lurralde Historikoko eskualde eta eskualde-egitura guztiak zeharkatzen eta lotzen baititu. Guztira 439 km-ko luzera du eta bederatziz ardatz nagusi ditu. Horietako batek, Donostia-Beasain ibilbideak zehazki, Alegiako udalerria zeharkatzen du.



16. irudia: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea Alegiatik barrena.

GBBLAP-ren arauen atalak erabilerak arautzeko proposamena egiten du, eta ezartzen du udalerriek, bere plangintzak egitean, 'Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokor' kalifikazioa atxiki behar dietela, ezinbestean, bizikleta bide horiei. Oinarrizko Sarearen konektagarritasuna bermatzeko, bideak igarotzen dituzten udalerrietako sarrera eta irteera puntuak ezartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta puntu horiek lotzen dituzten udal sareetako hiribarneko ibilbideak proposatzen ditu.

³⁶ Mirua21 & EKOLUR SLL, 2013. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala. Garapen Iraunkorreko Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

IV.3.7. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana³⁷

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko LAP-k behin-betiko onespina jaso zuen uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren eskutik. Honen helburu orokorrak hauek dira: batetik, Gipuzkoako hiri-hondakinen etorkizuneko kudeaketa lortzeko beharrezko azpiegituren kokalekuaren aurreikuspena jasotzea, betiere arauzko esparruan barne hartzen diren Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko prestakuntza-dokumentuetan ezarritako iraunkortasun-irizpideei jarraituz; eta, bestetik, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean finkatutako helburuei erantzutea.

Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapen-dokumentuak ez du Alegiako udalerrian hiri-hondakinatarako azpiegiturarik (hondakinen kudeaketa zentroa, konpostaje plantak, transferentzia estazioak, eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak hartzeko plantak, hondakindegia eta edukiontzia banatzeko plantak) proposatzen.

IV.4. AZTERTUTAKO ESPARRUAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUK

Alegiako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra lantzean honako plan edo programa hauen zehaztapenak ere kontutan hartu behar dira:

IV.4.1. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2010-2021³⁸

Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ) izenez ezagutzen den 2000/60/CE Zuzentaraua, 62/2003 Legearen bitartez espainiar araudian barneratua izan dena, aplikatzeko baliabidea da Plan hau, eta ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuak behin-betiko onespina eman dio. Agiriak Estatuko Administrazio Orokorrek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez, alde batetik, eta EAEk Ur-Agentziaren bitartez, bestetik, idatzitako plan hidrologikoak batzen ditu.

Plan honek Neurri Programa bat dauka eta Alegiako udalerrian zuzeneko eragina izango duten honako hauek aurreikusten ditu:

Neurria	Jarduketa ildoak	Jarduketa	Epea	Egoera
Muturreko gertakariekin zerikusia duten neurriak	Urperagarriak diren eremuen arriskuaren kudeaketa	Oria ibaiko Alegi-Benta Aundi zatian uholdeek eragindako kalteak konpontzea	2015	amaituta
Eskarien horniketarekin zerikusia duten neurriak	Hiri-horniketarako azpiegitura berriak edo daudenen erfortzua	Alegia gordailua	2021	hasi gabea

³⁷ Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

³⁸ Ur-Agentzia, 2013. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa. III. Eranskina.

IV.4.2. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020³⁹

2002. urtean onartu zen Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak EAE mailan 2020ra arte bete beharreko 5 ingurumen-helmuga finkatu ditu:

1. Aire, ura eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.
4. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

4. helmugak lotura zuzena du hiri-plangintzarekin. Helmuga horren barruan honako helburu hauek planteatu dira:

1. helburua: lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea. Helburu hori alderdi hauetan zehazten da: finkatutako hiria berritzea eta birgaitzea; hiri-eremuen bizi-kalitatea eta diseinu erakargarria hobe dadin sustatzea; eta hiri-plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetan eta iraunkortasun-irizpideetan integra dadin sustatzea.

2. helburua: askotariko erabilera eta jardueretarako (bizitegia, ekonomia-jarduerak eta aisialdia) garapen iraunkorra ahalbidetuko duen irisgarritasuna lortzea. Mugikortasuneko beharrak murriztu egin dira eta, horrela, motor bidezko mugikortasun-eskaria gehitzea ekarriko duten hirigintza-jarduerak eta -erabilerak saihestu ahal izango dira.

3. helburua: garapen ekonomikoa eta motor bidezko garraiobideen gehikuntza orokorra bereiztea. Ingurumen-inpaktu txikiagoko garraiabideak sustatzea eta motorrik gabeko garraiabideak eta motordunak parekatzea lortu nahi da.

IV.4.3. EAEko Aingira europarraren Kudeaketa Plana⁴⁰

Europako Kontseiluaren 2007ko iraileko Arautegiaren eskakizuna betetzearren, Eusko Jurlaritzak, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera, Aingiraren EAEko Kudeaketa Plana idatzi zuen 2008an, azken hamarkadetan espezie honek jasan duen beherapen nabarmenetik berreskuratzeko helburuarekin. Plan honen aplikazio esparruak kantaerialdeko arto guztiak hartzen ditu kontuan eta zenbait neurri proposatzen ditu.

IV.4.4. Bideen Herri Jabaria⁴¹

Errepide sarea herritarren zirkulazio askea eta lurraldeko sarbidea bermatzearren, administrazioak eskaintzen duen zerbitzu publikoa da. Zerbitzu hau era egokian betetze aldera, errepideak barne hartzen dituen plataforma fisikoa zehaztu da eta honi Bideen Herri Jabaria (Bideen Jabari Publikoa)

³⁹ Garapen iraunkorra. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jurlaritzak.

⁴⁰ Azti-Tecnalia, Ekolur SLL & UPV/EHU. 2008. EAEn Aingira europarra berreskuratzeko Kudeaketa Plana. Eusko Jurlaritzak.

⁴¹ Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturretako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

deritzo. Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzeko, ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-Emakeak honako eremu hauek ezartzen ditu:

- Herri jabariko gunea: *“Galtzadaz gain, hau da, ibilgailuen zirkulaziorako gainazalaz gain, honako hauek ere errepideen parte dira eta, beraz, bideen herri jabarikoak: Lauguneko elementu guztiak (bazterbideak, bermak, arekak, pasealekuak, ezpondak eta lubetak, eustorma eta sostengu hormak, zubi, zu bibide eta tunelak, egiturak eta gainerako fabrika obrak) eta, oro har, errepidea dela-eta egindako eraikuntza lan guztiak. Errepidearen gainean, azpian eta ezker-eskuin dauden herri jabetzako lurak ere errepidearen parte dira eta, beraz, bideen herri jabarikoak. Ezker-eskuin, herri jabetzako lurak zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia eta, oro har, Lehentasunezko Sareko errepideetan (Sare Gorria), eta hiru metroko zabalera, berriz, gainerako errepideetan, beti laugunearen kanpoaldeko marratik neurtzen hasita.”*
- Babesguneak: *“Gipuzkoako errepide eta bideen bi aldeetan babesgune bana egongo da, ondoko zabalera duena:*

	Metroak
Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako autobide eta autobietan (Sare Gorria eta Sare Laranja)	100
Lehentasunezko eta oinarrizko sareetako gainerako errepideetan (Sare Gorria eta Sare Laranja)	50
Eskualde Sareko errepideetan (Sare Berdea)	30
Sare Lokaleko errepideetan (Sare Horia eta Sare Grisa)	30
Bideetan	10

Distantzia horiek errepide edo bideko lauguneko ertz edo kanpoko marratik hasita neurtuko dira.”

Aipatutako Dekretuak eremu bakoitzeko erabilerak arautu egiten ditu.

V. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN DESKRIBAPENA ETA AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA ETA INGURUMEN AZTERKETA

V. 1 PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Alegiako Udalak helburu hauek ezarri ditu HAPOren gaineko txosten hau idazterakoan oinarritzat har daitezten:

1. Lurzorua tentuz hartzea, geroz eta urriagoa den ondasuna delako eta hartzen den lurreen egiten den guztiak ere inpaktu bat dakarrelako.
2. Lehen erabilitako lurrak berreskuratzea.
3. Kale-aldeko ingurumena hobetzea, onbideratze eta birgaitze ekintzak eginda (gune historikoa birgaitzea).
4. Hazkunde eredu ez 'desarrollista' hartzea, egiaztatze moduko eskaera eta beharrei kasu eginez.
5. Ekimen publikoa lehenestea, etxebizitzak nahiz jarduera ekonomikoetarako lurra sustatzeari dagokionez.
6. Eraikita baina hutsik dagoen bizitoki ondarea berriz ere erabiltzea.
7. Ekipamendu edo hornidura berriak egin eta lehendik datorren hornidura defizita berdintzea.
8. Onura Publikoko Mendiaren kudeaketa kontserbazioarekin bat datozen irizpideak jarraituz egitea.

V. 2 AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEAK

Hiru dira aintzat hartutako hautabideak:

- Indarrean dagoen plangintzak, hau da, 1996ko Arau Subsidiarioek eta gerora onartu diren hauen aldaketek proposaturiko antolamendua. Honi '0. hautabidea' deituko diogu eta **II.1 planoan** irudikatu da.
- 2003. urtean eginiko berrikuspena, etxebizitza- eta industria-garapen handiak aurreikusten dituen. Hau '1. hautabidea' izango da eta **II.2 planoan** irudikatu da.
- 2014an, Alegiako HAPO-ren elaborazio fase honetan egin den proposamen berria, egungo egoera sozioekonomikora moldatua. '2. hautabidea' da hau eta **II.3 planoan** ikus daitekeenez, aurrekoak baino garapen txikiagoak aurreikusten ditu.

V.3 PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA

Alegiako Udalerrian 21 garapen-esparru bereizten dira, gaur egun duten sailkapena ondorengo taulan azaltzen delarik:

Esparruak	Sailkapena	Zonakatze orokorra
A.I.U. 1 Alde Zaharra	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 2 Parkea	hiri-lurzorua	espazio libreak
A.I.U. 3 Erbeta	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 4 Erbeta Iparra	lurzoru hiritarrezina	--
A.I.U. 5 Orendain	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 6 Hegoalde	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 7 Eskolak	hiri-lurzorua	ekipamendu eremua
A.I.U. 8 Kiroldedia	hiri-lurzorua	ekipamendu eremua
A.I.U. 9 Larraitz Ekialdea	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 10 Larraitz Mendebaldea	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 11 Errotaldea	hiri-lurzorua	industria eremua
A.I.U. 12 Becker	hiri-lurzorua	industria eremua
A.I.U. 13 Errota	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 14 Kanposantua	hiri-lurzorua	ekipamendu eremua
A.I.U. 15 Bazurka	hiri-lurzorua	industria eremua
A.I.U. 16 Begiristain	hiri-lurzorua	bizitegi eremua
A.I.U. 17 Begiristain Berri	lurzoru hiritarrezina	--
A.I.U. 18 Franconi	lurzoru hiritarrezina	--
A.I.U. 19* Osiribar	lurzoru hiritarrezina	--
A.I.U. 19 Etxe-Eutera	lurzoru hiritarrezina	--
A.I.U. 20 Txintxarri	lurzoru hiritarrezina	--

*Soilik 1. hautabidean proposatutakoa.

Esparru bakoitzarentzat aintzat hartutako hiru hautabideek proposamen zehatzak egiten dituzte:

0 hautabideak egungo garapenak eta erabilerak finkatzeko irizpidea ezartzen du, kasuan kasuko xehekapen azterlan eta plan berezien bitartez, esparru guztietan Orendain eta Errotan salbu, hauetan egungoak ordezkaturako dituzten etxebizitza garapenak (guztira 20 etxebizitza berri) aurreikusten baititu.

1. hautabideak, 218 etxebizitza berri eraikitzea (Erbeta Iparra, Orendain, Hegoalde, Errota eta Begiristain Berri esparruetan) eta ekipamendu eta industria jardueretarako lurzoru berria sailkatzea proposatzen du (Franconi eta Osiribar esparruetan); Amezketaren ibaiaren ertzean oinezkoentzako ibilbide bat egitea ere aurreikusten du.

2. hautabidearen arabera Erbeta Iparra industria eremu bezala mantenduko litzateke, etxebizitza berriak (151 guztira) Orendain, Hegoalde, Errota eta Begiristain Berri esparruetan kontzentratuko liratekeelarik. Franconi esparrua ekipamenduetarako lurzoru bezala sailkatzearekin bat dator, baina Osiribar esparrua dagoen moduan uzteko proposatzen du, bihar-etzirako gordetze aldera. Gainera,

Etxe-Eutera eta Txintxarri esparru berriak (lehen Erbeta Iparra eta Begiristain Berriren barruan, hurrenez hurren) zehazten ditu, hauetan dauden etxebizitza garapenak lurzoru hiritarraren barnean hartu eta finkatzeko irizpidearekin.

Beraz, aurreko taulan adierazitako esparruetako batzuetan egungo garapenak finkatzeko irizpidearekin bat datozen hiru hautabideak, ez da kasu hauetan ingurumen azterketarik egin behar. Garapen berriak edo erabilera aldaketak aurreikusten diren esparruak, ordea, ingurumen azterketapean jarriko dira. Hauek dira hurrengo atalean aztertuko diren esparruak: Erbeta Iparra, Orendain, Hegoalde, Errota, Begiristain Berri, Franconi eta Osiribar. Azkenik, gainontzeko lurzoru hiritarrezinaren zonakatzea landuko da.

V. 4 AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN-AZTERKETA

V.4.1. Hautabideen ingurumen-azterketarako metodologia

Esan bezala, atal honetan garatuko den hautabideen ingurumen-azterketa HAPO-ak definitzen dituen ekintza-eremu edo esparruetako bakoitzak gaur egun aurkeztzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusietan oinarrituko da. Ondoren, hautabide ezberdinen balorazioa egingo da, bakoitzak izango lituzkeen onura eta kalte potentzialak identifikatuz.

Aurreikusten diren hirigintza garapenen ezaugarriak kontuan harturik (etxebizitza-, jarduera ekonomiko- eta merkataritza-garapenak), hauek gehien baldintzatuko dituzten ingurumen-eragileak honakoak izan daitezke:

- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Aztertutako eremu batzuek ahalmen agrologiko handiko lurzoruak dituzte gaur egun, bertan aurreikusitako garapenak lurzoru hauek galtzea ekarriko luketelarik. Alderdi hau baldintzatzailetzat jotzeko irizpidea lurzoria Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen II edo III kategoriatan sailkatuta egotea, egungo egoeraren arabera eguneratu ondoren, edota Nekazaritza eta Basogintza LAP-ean 'Balio estrategiko altua' kategorian sailkatuta egotea izan da.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aztertutako eremuak lurrazaleko ur-ibilguren batek (ibai, erreka eta erreka) zeharkatzen dituen hartu da kontuan, aurreikusitako garapenak baldintzatuko baitituzte. Baldintzatzaile hau definitu ahal izateko irizpide bezala ibilgu iraunkorrak besterik ez dira kontuan hartu, hau da ur-isuria urte osoan zehar mantentzen duten ibilguak. Horretarako EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako LAP-aren antolakuntza planoetan ageri diren ur-ibilguak aintzat hartu dira.
- Landaretza: Aztertutako eremu batzuek interesa duen landaretza edo habitatak azaltzen dituzte gaur egun, hauen babesa eta mantentzea batzuetan bateraezina delarik esparru hauetarako aurreikusten diren garapenekin. Kasu honetan, eremuek gaur egun azaltzen duten landaretza baldintzatzailea izan daiteke bertan aurreikusten diren hirigintza-garapenentzat, babestu beharreko landaretza den kasuetan. Txosten honen III.6 ataleko *Interes bereziko landaredia* azpiatalean azaltzen denez, intereseko landareditzat jo dira, alde batetik 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean definituriko Interes Komunitarioko Habitatak, eta bestetik hostozabalen baso autoktonoak (artadiak, hariztiak, pagadiak, e.a.).

- Fauna: Alegiako udalerrian EAeko Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden zenbait espezie aurki daitezke. Hauetako baten kasuan, bisoi europarraren kasuan alegia, espezie honentzat definituriko 'lehentasunezko banaketa eremua'k udalerria zeharkatzen du. Uhalde-enararen kasuan bestalde, espezie honen habien kokalekua udalerrian ezaguna da. Gainontzeko espeziei dagokienez, berriz, ez dugu hauen ugalketa lekuei buruzko datu zehatzik. Baldintzatzaile honen eragina aztertzerakoan, beraz, esparru ezberdinak aipatutako 'lehentasunezko banaketa eremua'rekin, ezagututako koloniaren kokapenarekin edota orokorrean mehatxatutako faunaren habitat potentzialarekin bat datozen hartuko da irizpidetzat.
- Naturagune babestuak: Alegiako Udalerrian legearen babespean edo bestelako babesen bat duten zenbait naturagune daude, hala nola, Oria Garaiko KBE, LAA-k definituriko 'Araxes ibaiaren harana-Jazkugane eta Basabe' Interes Naturalistikoko Eremua eta EAE-ko korridore ekologikoen sarea osatzen duten zenbait elementu. Etxebizitza- eta industria-garapenatarako proposaturiko esparruek gune hauekin bat egiten duten aztertuko da baldintzatzaile hau definitzeko garaian.
- Paisaia: Zenbait esparrutan aurreikusten diren garapenek paisaiaren gainean eragina izan dezakete; eragin honen tamaina eremu horren paisaiaren egungo kalitatearen eta inguruko paisaiaren ezaugarrien arabera izango da.
- Ingurumen-arriskuak: Kontuan hartu diren arrisku nagusiak honakoak dira:
 - Uholde-arriskua: Ur-Agentziak argitaratutako uholde arriskuei buruzko maparen arabera, Alegiako hiriguneko zenbait eremu Oria eta Amezketa ibaiei lotuta birgertatze-aldi ezberdinetarako (10, 100, 500 urte) urperagarriak diren gunetan kokatzen dira. Aurreikusten diren garapen nagusiak hartuko dituzten eremuek duten uholde-arriskua aztertuko da. Ur-Agentziak darabiltzan irizpideak⁴² ikusirik, arrisku hau baldintzatzailetzat jotzeko 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiari dagozkion eremu urperagarriak besterik ez dira kontutan hartu, hauentzat zenbait mugaketa eta baldintza ezartzen baitira hirigintza-garapen berriei dagokienez.
 - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Azterketa-esparruak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duten eremuen barruan ote dauden aztertu da.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: Azterketa-eremu ezberdinek IHOBek eginiko '*Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoru inbentarioan*' dauden lursailak dituzte gaur egun, beraz hau beste baldintzatzaile bat izango da aurreikusten diren garapen batzuentzat.
 - Higadura jasateko arriskua: Nekazaritza eta Basogintza LAP-k azaltzen dituen higadura arriskua duten eremuak eta %50 gainditzen duten maldak kontuan hartuz, azterketa-eremuek jasan dezaketen higadura-arriskua baloratuko da, gerora ere aurreikusitako garapenak aurrera eramateko baldintzatzaile izango ote den zehazteko.
 - Zarata: Alegiako udalerriko mapa akustikorik ezean, N-1 errepidearekiko, trenbidearekiko zein industria jardueretik esparruen hurbiltasuna baloratuko da.

⁴² Ur-Agentzia, 2011. Lurra erabiltzeko irizpideak lurra urpean gelditzeko duen arrisku-mailaren arabera.

- Kultur ondarea: Azterketa-eremuetan kultur ondareko elementuren bat egoteak bertan emango diren garapenak baldintzatuko lituzkeenez, garapen ezberdinetarako aurreikusten diren azterketa-eremuek duten kultur ondarea aztertuko da.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Etxebizitza- eta industria-garapen berrietarako proposaturiko esparru nagusiek eduki dezaketen mugikortasun beharra eta hirigunetik duten irisgarritasuna aztertuko dira, bereziki garraibide iraunkorrei dagokienez. Testuinguru honetan, mugikortasuna eta irisgarritasuna honela aztertuko da:
 - Azterketa-eremu ezberdinek Alegiako hirigunearekin bizikleta bidezko lotura izateko duten aukera.
 - Azterketa-eremu ezberdinen kokaleku eta erliebearen arabera, eremu hauek Alegiako hirigunearekin oinezko lotura izateko aurkezten duten aukera aztertuko da.

Jarraian hautabide bakoitzaren azterketa egingo da honako eskema hau jarraituz:

- Hautabideen deskribapena: hautabide bakoitzak aztertutako esparruan proposatzen duena.
- Eragindako esparruan azaltzen diren ingurumen baldintzatzaileak: arestian aipatutako ingurumen eragileen arabera.
- Hautabideen ingurumen balorazioa: taula batean jasoko da, non eragile bakoitzaren eragina honela adieraziko den:
 - '-': ez da eragin nabarmenik aurreikusten.
 - '+': eragin positiboa aurreikusten da.
 - 'bateragarria': eragina (negatiboa) bada, baina tamaina txikikoa edota neurri zuzentzaileak hartuz gero murriztu litekeena.
 - 'nabarmena': aurreikusitako eraginak (negatiboa) neurrizko tamaina dauka eta era nabarmenean mugatuko lituzke proposatutako garapenak.
 - 'larria': aurreikusitako eraginaren (negatiboa) tamaina handia da eta proposatutako garapenak era garrantzitsuan mugatuko lituzke.

V.5. ESPARRUKAKO AZTERKETA


A.I.U. 4 ERBETA IPARRA – A.I.U. 20 TXINTXARRI

1,39 ha – 0,33 ha

Hautabideen deskribapena


0 hautabidean esparru hauek ordenazioz kanpo daude.

1. hautabideak A.I.U. 20 Txintxarri, A.I.U. 4 Erbeta Iparra esparruaren barruan hartzen du. Bertan dagoen industria (Auxiliar Papelera) eta aldameneko eraikinak bota eta eraikuntza irekiko etxebizitzak garatzea alde batetik, eta Txintxarri eremuko dentsitate baxuko bi etxebizitzak finkatzea proposatzen du, hurrengo irudian agertzen den bezala.



17. irudia: 1. hautabidearen garapen proposamena Erbeta Iparra esparrurako.

2. hautabideak, bi esparruak bereizi eta egun industria dagoen eremua (A.I.U. 4 Erbeta Iparra) jarduera ekonomikoetarako lurzoru bezala uztea proposatzen du, industria jarduerak handitzeko aukera emanez eta A.I.U. 20 Txintxarri esparruan irizpidea finkatzea izango delarik.



18. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Erbeta Iparra esparrurako

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: Erbeta Iparra esparruko iparraldeko muturrean baratza batzuk aurkitzen dira, beste guztia hiritartuta dagoelarik. Garapen berriek zati hau ere hartuko luketenez, 0,5 ha inguruko lurzoruaren okupazioa ekarriko lukete.
- Orografia: Esparru hauetako orografia oro har laua da beraz maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrolotikoa: Azaleraren zatirik handiena hiritartuta dago, baina esparruaren iparraldeko muturrean ahalmen agrolotiko handiko baratza batzuk badaude (0,5 ha).
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruek ekialdean Oria ibaiarekin muga egiten dute, EAEko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k IV mailan sailkatutako tartea. Honek, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Oria ibaiaren ertzetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da kontserbazio-egoera desegokian. Aurreikusten diren garapenek ez lukete eraginik izan behar ibar baso andeatu hauetan, baina zeharkako eraginak ekiditeko neurriak hartu beharko dira obra fasean batez ere.
- Fauna: Esparruen zati bat, handiagoa Erbeta Iparren kasuan, bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago. Bestetik, ibaiertzak hainbat intereseko espezieen habitat dira, hala nola uhalde-enararena, esparruetatik oso hurbil ugaltzen dena. Aurreikusten diren garapenek intereseko faunarengan eraginak ekiditeko, neurriak hartu beharko lirateke.
- Naturagune babestuak: Esparru hauek ez datoz bat udalerrian agertzen diren babestutako naturaguneekin.
- Paisaia: Esparru hauen paisaia itxura nahasikoa da: etxebizitzak Txintxarrin, industria eta baratzak Erbeta Iparren, errepidea eta trenbidea alde batera, Oria ibaia bestera... Gauzak horrela, esparru hauen paisaiaren kalitatea ertaina dela esan daiteke, bere berreskuratzea garrantzitsua jotzen delarik, batez ere Tolosatik heltzerakoan herriko lehenengo ikuspegia osatzen dutelako. Eremuaren paisaiaren harrera-ahalmenari dagokionez, aurreikusten diren garapenak hartzeko ahalmena baduela esan daiteke, paisaian industria-jarduerak zein bizitegikoak ez baitira arrotzak.
- Kultur ondarea: Esparru hauetan ez da kultur ondarearen elementurik azaltzen.
- Ingurumen arriskuak:
 - o Higadura-arriskua: Esparru hauen orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzailezat hartzen.
 - o Akuiferoen urrakortasuna: Bi esparruak akuiferoen urrakortasun oso txikia azaltzen duen gune batean kokatzen dira.
 - o Uholde-arriskua: Oria ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak Erbeta Iparra eremuari eragiten dio era oso nabarmenean, 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko eremuak eta lehentasunezko fluxu eremuak esparru honen azalera ia osoa hartzen dutelarik. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatzen

ditu 1. eta 2. hautabideen proposamenetan doiketa garrantzitsuak egin beharko liratekeelarik.

- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzoruak: Erbeta Iparra esparruko Auxiliar Papelera industriaren eremua (1,3 ha) IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n agertzen da, 20005-00001 kodeaz identifikatua. Honek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezake, izan ere kutsatutako lurzoruen indusketa behar izanez gero, era berezian kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko bailuke. Edonola ere, eremu honetan proposaturiko jarduerak 1/2005 legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzekoak, ezartzen duenaren menpe egongo dira.
- Zarata: GI-2131 errepidea eta trenbidea, alde batetik, eta Erbeta Iparra esparruko industria-jarduerak bestetik zarata iturri izan daitezke. Mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu dauden esparruak dira eta ingurua laua denez, motorgabekoen joan-etorriak ahalbidetzen ditu. Gainera, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarriko Sarea esparruen artetik igarotzen da, GI-2131 errepidea ardatz hartuta. Halere, Erbeta Iparraren esparruan oinezko irrisgarritasuna hobetu beharko litzateke, espaloirik ez baitago gaur egun.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.4. A.I.U. 4 Erbeta Iparra – A.I.U. 20 Txintxarri** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen dira:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzoruaren okupazioa	-	nabarmena	nabarmena
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaretza	-	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	-	bateragarria	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria	bateragarria
Uholde arriskua	-	larria	larria
Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	-	nabarmena	nabarmena
Zarata	-	nabarmena	bateragarria


A.I.U. 5 ORENDAIN

0,29 ha

Hautabideen deskribapena


0 hautabideak 12 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten zuen, aurrekoak ordezkatzuz 1996ko Arau Subsidiarioen arabera. Proposamen hauek zati batean dagoeneko garatuta daudenez, indarrean dagoen planeamenduaren arabera Aralar Bidearen ondoko eraikina finkatu eta besteak 8 etxebizitza berriez ordezkatzuko lirateke.

1. hautabideak 0 hautabideak dioena barneratzen du.



19. irudia: 0 eta 1. hautabideen garapen proposamena Orendain esparrurako.

2. hautabideak, aprobetxamendu hau doitu eta 12 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du.



20. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Oreindain esparrurako

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: Aurreikusitako garapenek gaur egun daudenak ordezkatu lituzkeenez, ez da lurzoruaren okupazioa handitzerik espero. Etxebizitzen dentsitatea doitzek (2. hautabidearen proposamena) lurzoruaren okupazio berriak beste esparruetan murrizten lagundu beharko luke.
- Orografia: Esparru honetan gaur egun hiritartuta ez dagoen luzoruak %50tik gorako malda dauka, baina proposaturiko garapenek zati honi eragiten ez dienez, ez da baldintzatzailetzat hartzen.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honetan ez da ahalmen agrologiko handiko lurzorurik aurkitzen.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruak iparraldean Oria ibaiarekin muga egiten dute, EAEko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k IV mailan sailkatutako tartea. Honek, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Esparru honen eraikinen atzealdean azaltzen den larretxo '6510 Altuera txikiko segalarre txiroak' Interes Komunitarioko Habitat motatakoa da. Bestalde, Oria ibaiaren ertzetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da kontserbazio-egoera desegokian. Aurreikusten diren garapenek ez lukete eraginik izan behar aipatutako ibar-habitat hauetan, baina zeharkako eraginak ekiditeko neurriak hartu beharko dira obra fasean batez ere.
- Fauna: Esparruen zati handia bisoi europarrarentzako 'lehenetsuzko banaketa-eremua' ren barne dago, eta uholde-enarak esparru honen eta aldamenekoen Oria ibaia bideratzeko hormetan egiten

ditu habiak. Gainera, ibaiertzak beste hainbat intereseko espezieren habitat dira. Aurreikusten diren garapenek intereseko faunarengan eraginak ekiditeko, neurriak hartu beharko dira.

- Naturagune babestuak: Esparru honen zati bat, errepideari dagokiona, Oria Garaiko KBE-ren mugen barne dago, baina zati hau iada artifizialdua dagoenez, ez da proposamenek eragiterik espero.

- Paisaia: Esparru txiki honetan etxebizitzak eta larrea eta basoa dituen inguru naturala batzen dira. Proposatzen diren garapenek existitzen diren eraikinak ordezkatzeari suposatzen dutenez, eraikin berrien tipologiaren aldetik baino ez da eraginik espero, are gehiago kontutan izanda esparru hau Alde Zaharreko elementu arkitektoniko baliotsuenen aurrez aurre kokatuta dagoela.

- Kultur ondarea: Esparru honen eta Alde Zaharraren artean Zubizaharra kokatzen da, Santiago Bideari lotutako babes maila zorrotza duen ondare historiko-arkitektonikoko elementu kalifikatua. Aurreikusitako garapenek ez liokete zuzeneko inpakturik eragingo.

- Ingurumen arriskuak:

- Higadura-arriskua: Esparru honetan higadura arriskua dago hiritartuta ez dagoen zatian, malda handiak direla eta, baina proposaturiko garapenek zati honi eragiten ez diotenez, ez da arrisku hau baldintzatzailetzat hartzen.
- Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun oso txikia azaltzen duen gune batean kokatzen da.
- Uholde-arriskua: Nahiz eta Oria ibaiaren ondoan egon, esparru hau 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eta lehentasunezko fluxu eremuetatik kanpo dago.
- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzorua: IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n ez da eremurik zehazten esparru honen barnean.
- Zarata: Mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunean bertan dagoenez aurreikusitako garapen berriek zentzu honetan eraginik ez dutela izango uste da.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.5. A.I.U. 5 Orendain** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzorua okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaretza	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Naturagune babestuak	-	-	-
Paisaia	bateragarria	bateragarria	bateragarria


A.I.U. 6 HEGOALDE	0,54 ha
--------------------------	---------

Hautabideen deskribapena

Esparru hau '1-6 Hiltegia' bezala azaltzen da aurreko plangintzan.


0 hautabideak esparru honentzat finkatzeko irizpidea ezartzen du eta Barne Erreformatarako Plan Berezia zehaztea.

1. hautabideak dauden eraikinen ordeztan 18 etxebizitza berri egitea proposatzen du eta Amezketara ibai balioan jartzea oinezkoentzako ibilbide bat eginez.



21. irudia: 1. hautabidearen garapen proposamena Hegoalde esparrurako

2. hautabideak, aldez, Hegoalde kaleko eraikin bat finkatu eta 27 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du.



22. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Hegoalde esparrurako

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: Eremu osoa hiritartuta dagoela esan daiteke, beraz garapen berriek ez dute lurzoruaren okupazioan eraginik izango. Bestalde, 2. hautabideak egun pribatuak diren baratza eta lorategien ordean erabilera publikoko enparantzaxo bat sortzea proposatzen du, hau eragin positibotzat hartzen delarik.
- Orografia: Esparru honetan orografia oro har lauaenez maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honetan baratza eta lorategi batzuk badaude ere, ez dira ahalmen agrologiko handikotzat jotzen.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruak iparraldean Oria ibaiarekin muga egiten du, Amezketa ibaiarekin ekialdean, EAEko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k IV eta II mailatan, hurrenez hurren, sailkatutako tartek. Hau dela eta, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Esparru honetan ez da intereseko habitatik edo espezierik identifikatu.
- Fauna: Esparruaren zati handia bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago, eta uholde-enarak esparru honetako Oria eta Amezketa ibaiak bideratzeko hormetan egiten ditu habiak. Gainera, ibaiertzak beste hainbat intereseko espezieren habitat dira. Aurreikusten diren garapenek intereseko faunarengan eraginak ekiditeko, beraz, neurriak hartu beharko dira.

- Naturagune babestuak: Esparru honen zati bat, ibai aldeko enparantza hartzen duena, Oria Garaiko KBE-ren mugen barne dago.
- Paisaia: Esparru honetan enparantza, etxebizitzak eta hauen atzealdeko baratza eta lorategiak biltzen dira. Proposatzen diren garapenek existitzen diren eraikinak ordezkatea suposatzen dutenez, eraikin berrien tipologiaren aldetik baino ez da eraginik espero, are gehiago kontutan izanda esparru honen kokapena, hirigunearen erdian eta Alde Zaharraren aurrean dagoela.
- Kultur ondarea: Esparru honen eta Alde Zaharraren artean Zubizaharra kokatzen da, Santiago Bideari lotutako babes maila zorrotza duen ondare historiko-arkitektonikoko elementu kalifikatua. Aurreikusitako garapenek ez liokete zuzeneko inpakturik eragin beharko.
- Ingurumen arriskuak:
 - o Higadura-arriskua: Esparru honetan orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzailatzat hartzen.
 - o Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun oso txikia azaltzen duen gune batean kokatzen da.
 - o Uholde-arriskua: Oria eta Amezketa ibaiei lotutako lehentasunezko fluxu eremuak eta 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eremuek esparru honen azalera ia osoa hartzen dute. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatuko ditu.
 - o Kutsatuta-egon daitezkeen lurzorua: IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n ez da eremurik zehazten esparru honen barnean.
 - o Zarata: Mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunean bertan dagoenez aurreikusitako garapen berriek zentzu honetan eraginik izatekotan, positiboa izatea espero da, erabilera publikoa lagunduko duelako (1. hautabidean eta 2. hautabidean).

Ingurumen baldintzatzaille nagusiak **II.6. A.I.U. 6 Hegoalde** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzorua okupazioa	bateragarria	bateragarria	+
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	-	bateragarria	bateragarria
Naturagune babestuak	-	bateragarria	bateragarria
Paisaia	-	bateragarria	bateragarria
Uholde-arriskua	-	nabarmena	nabarmena
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	+	+


A.I.U. 13 ERROTA

0,29 ha

Hautabideen deskribapena


0 hautabideak esparru honetan Xehekapen Azterlan baten bidez gaur egun esparruan dauden eraikinak bota eta eta hauen ordeztu 18 etxebizitza berri eraikitzea aurreikuste du.

1. hautabideak ez du indarrean dagoen plangintzarekiko aldaketarik proposatzen, Amezketari ibaiaren ondoan oinezkoentzako ibilbide bat egitearen proposamena izan ezik.



23. irudia: 0 eta 1. hautabideen garapen proposamena Errota esparrurako

2. hautabideak, 1. hautabideak aurreikusitako aprobetxamendua doitu eta 24 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du.



24. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Errota esparrurako

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: Aurreikusitako garapenek gaur egun daudenak ordezkatu lituzkeenez, ez da lurzoruaren okupazioa handitzerik espero. Etxebizitzen dentsitatea doitzek (2. hautabidearen proposamena) lurzoruaren okupazio berriak beste esparruetan murrizten lagundu beharko luke.
- Orografia: Esparru honetan orografia oro har laua da, beraz maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honetan ez da ahalmen agrologiko handiko lurzorurik aurkitzen.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruak mendebaldean Amezketa ibaiarekin muga egiten du, EAeko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k II mailan sailkatutako tartea. Hau dela eta, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Esparru honen hegoaldeko muturrean '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da. Aurreikusitako garapenek landaretzarengan izan ditzaketen eraginak ekiditeko, neurriak hartu beharko dira, obra fasean batez ere.
- Fauna: Esparruaren zati handia bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago. Gainera, ur-ibilguak eta hauen ertzak hainbat intereseko espezieren habitat dira. Aurreikusten diren garapenek intereseko faunarengan eraginak ekiditeko, beraz, neurriak hartu beharko dira.
- Naturagune babestuak: Esparru hau ez dator bat udalerrian agertzen diren naturagune babestuekin.
- Paisaia: Esparru honetan etxebizitzak daude gaur egun eta proposatzen diren garapenek existitzen diren eraikinak ordezkatzeko suposatzen dute. Beste alde batetik, esparrua landa-paisaiatzat inguratuta dagoenez, paisaiaren aldetik urrakortasun ertainekoa dela esan daiteke.

- Kultur ondarea: Esparru honetan kultur ondareko elementurik ez dago; esparruari izena ematen dion Alegiako errota, ustezko gune arkeologikoa, honen mendebaldean baina mugetatik kanpo kokatuta dago, beraz ez da zentzu honetan eraginik espero.

- Ingurumen arriskuak:

- Higadura-arriskua: Esparru honetan orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzailetzat hartzen.
- Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun oso txikia azaltzen duen gune batean kokatzen da.
- Uholde-arriskua: Amezketari ibaiari lotutako lehentasunezko fluxu eremuak eta 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eremuak esparru honen azalera osoa hartzen dute. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatuko ditu.
- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzorua: IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'k 190 m²-ko eremua (20005-00011 kodea) zehazten du esparru honen barnean. Honek aintzat hartzeko moduko ingurumen-eragina izan lezake, izan ere kutsatutako lurzoruen indusketa behar izanez gero, era berezian kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko bailuke. Edonola ere, eremu honetan proposaturiko jarduerak 1/2005 legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzekoak, ezartzen duenaren menpe egongo dira.
- Zarata: Becker eta Errotaldea esparruetako industria jarduerak izan daitezke zarata iturri esparru honetan. Hala ere, mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunetik urrunen aurkitzen den bizitokia izanik, garapen berriek mugikortasun beharrak handituko lituzkete. Hala ere, ingurua laua denez, motorgabekoen joan-etorriak sustatzea ez litzateke zaila izango, beti ere alboko Begiristain-berri esparruaren antolamenduan behar hauek asetzeko irtenbidea ematen bazaio.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.7. A.I.U. 13 Errota** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzoruen okupazioa	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Lurrazaleko ur-ibilguak	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Intereseko fauna	bateragarria	bateragarria	bateragarria
Paisaia	nabarmena	nabarmena	nabarmena
Uholde-arriskua	nabarmena	nabarmena	nabarmena
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	bateragarria	bateragarria	bateragarria


A.I.U. 17 BEGIRISTAIN BERRI – A.I.U. 19 ETXE EUTERA

2 ha – 0,03 ha

Hautabideen deskribapena

0 hautabidean esparru hauek ordenazior kanpo daude.

1. hautabideak Etxe-Eutera esparrua Begiristain Berriren barnean hartzen du eta hiri-lurzoru bezala kalifikatzea proposatzen du 104 etxebizitza berriren eraikuntzarekin. Amezketa ibaiaren ondoan oinezkoentzako ibilbide bat egitea ere aurreikusten du.



25. irudia: 1. hautabidearen garapen proposamena Begiristain Berri esparrurako

2. hautabideak, Etxe-Eutera esparrua Begiristain Berritik bereizi eta finkatzea proposatzen du. Gainontzean, 1. hautabideak aurreikusitako aprobetxamendua doitu eta bi fasetan 218 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du: HAPO honen indarraldian lehenengo fasea garatzea baino ez da proposatzen, 88 etxebizitza eraikitzea esparruko iparraldeko muturrean, beraz ingurumen balorazioa egiterakoan, fase hau kontutan hartuko da soilik.



26. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Begiristain Berri esparrurako.

Ingurumen baldintzatzaileak

A.I.U.19 Etxe-Eutera esparruan hautabideek aldaketarik proposatzen ez dutenez, ondorengo analisia A.I.U.17 Begiristain Berri esparruari soilik egokituko zaio:

- Lurzoruaren okupazioa: Proposatutako garapenek 2 ha-ko azalera hiritartzea suposatuko lukete 1. hautabidearen kasuan eta 1 ha inguru 2. hautabidearen kasuan.
- Orografia: Esparru honetan orografia laua da, beraz maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honen azalera ia osoa Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak 'III. Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak' bezala sailkatzen du, eta Nekazaritza eta Basogintzako LAP-k 'balio estrategiko altuko' gunetzat dauka.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruak ipar-ekialdean Amezketa ibaiarekin muga egiten du, EAeko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k II mailan sailkatutako tartea. Hau dela eta, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Esparru honetan 0,4 ha-ko azalera duen '6510 Altuera txikiko sega-larre txiroak' Interes Komunitarioko Habitata azaltzen da; proposaturiko garapenek honen galera ekarriko lukete. Gainera, esparruarekin muga egiten duen Amezketa ibaiko ertzetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da, kontserbazio egoera onargarrian. Kasu honetan, neurriak hartu beharko lirateke, obra fasean batez ere, aurreikusitako garapenek landaretzarengan izan ditzaketen eraginak ekiditeko.

- Fauna: Esparruaren zati bat bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago. Gainera, ur-ibilguak eta hauen ertzak alde batetik, eta belardi hezeak bestetik, hainbat intereseko espeziaren habitat baliotsuak dira. Proposatutako garapenek esparruko biodibertsitatea zeharo murriztuko lukete.

- Naturagune babestuak: Esparru hau ez dator bat udalerrian agertzen diren naturagune babestuekin.

- Paisaia: Esparru honen paisaiak nekazal ezaugarriak ditu orokorrean (baratzak, larrea...), erreka ondoan egoteak ere balioa ematen diolarik. Proposatzen diren garapenek hiritartzea suposatuko lukeenez, paisaiaren kalitatearen murrizketa eragingo lukete. Hala ere, kontutan izanda esparru honen hego-mendebaldean Errotaldeako industriagunea dagoela, eragina ez litzateke han nabaria izango.

- Kultur ondarea: Esparru honetan kokatzen zen kanposantu zaharra, baina babesa merezi duten kultur ondareko elementurik ez dago.

- Ingurumen arriskuak:

- Higadura-arriskua: Esparru honetan orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzailetzat hartzen.
- Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun hautemangarririk gabeko gune batean kokatzen da.
- Uholde-arriskua: Amezketan ibaiari lotutako 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eremuak eta lehentasunezko fluxu eremuak esparru honen azalera ia osoa hartzen dute. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatuko ditu eta 1. zein 2. hautabideen proposamenetan doiketa garrantzitsuak egin beharko lirateke.
- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzorua: Esparru honetan ez dago IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n identifikatutako eremurik.
- Zarata: Becker eta Errotaldea esparruetako industria jarduerak izan daitezke zarata iturri esparru honetan. Hala ere, mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunetik gertu kokatzen da, beraz nahiz eta etxebizitza garapen berriek mugikortasun beharrak handituko lituzketen, irisgarritasunaren aldetik ez litzateke arazorik egongo, ingurua laua denez, motorgabekoetan joan-etorriak ahalbidetuko liratekeelako.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.8. A.I.U. 17 Begiristain Berri, A.I.U. 19 Etxe-Eutera** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzoruaren okupazioa	-	larria	nabarmena
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	larria	larria
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaretza	-	larria	larria
Intereseko fauna	-	nabarmena	nabarmena
Paisaia	-	nabarmena	nabarmena
Uholde-arriskua	-	larria	larria
Zarata	-	baterag./nabarm.	baterag./nabarm.
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	-	bateragarria	bateragarria


A.I.U. 18 FRANCONI

0,79 ha

Hautabideen deskribapena

0 hautabidean esparru hau ordenazioz kanpo dago.

1. hautabideak esparrua hiri-lurzorutzat hartzea proposatzen du, gaur egun daukan zuzkidura erabilera finkatzeko. Amezketan ibaiaren ondoan oinezkoentzako ibilbide bat egitea ere aurreikusten du.
2. hautabideak, 1. hautabidearen proposamenari giza-azpiegituretarako eraikin berria egitea gehitzen dio.



27. irudia: 2. hautabidearen garapen proposamena Franconi esparrurako

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: 1. eta 2. hautabideek esparruaren hiritartze maila ezberdina proposatzen dute, gehienez 0,7 ha-ko lurzorua okupatuko litzatekeelarik.
- Orografia: Esparru honetan orografia laua da, beraz maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honen azalera ia osoa Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak 'III. Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak' bezala sailkatzen du, eta Nekazaritza eta Basogintzako LAP-k 'balio estrategiko altuko' gunetzat dauka.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparruak hego-mendebaldean Amezketan ibaiarekin muga egiten du, EAEko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k II mailan sailkatutako tartea. Hau dela eta, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.

- Landaretza: Esparru honetan 0,1 ha hartzen dituen '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitata azaltzen da. Proposatutako garapenek hauen galera partziala (edo osoa, 1. hautabideak horri bidea ematen baitio) ekarriko lukete.
- Fauna: Esparruaren zati bat bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago. Gainera, ur-ibilguak eta hauen ertzak alde batetik, eta belardi hezeak bestetik, hainbat intereseko espezieren habitat baliotsuak dira. Proposatutako garapenek, hauen azalera murrizterakoan esparruko biodibertsitatea ere murriztuko lukete.
- Naturagune babestuak: Esparru hau ez dator bat udalerrian agertzen diren naturagune babestuekin.
- Paisaia: Esparru honen paisaiak positibotzat hartzen diren hainbat ezaugarri ditu: lorategi eta belardia, baratzak, erreka... Proposatzen diren garapenek, 2. hautabidearen kasuan batez ere, esparruaren hiritartze maila handitzea suposatuko luketenez, paisaiaren kalitatearen murrizketa eragingo lukete.
- Kultur ondarea: Esparru honetan ez dago kultur ondareko elementurik.
- Ingurumen arriskuak:
 - Higadura-arriskua: Esparru honetan orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzailetzat hartzen.
 - Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun hautemangarririk gabeko gune batean kokatzen da.
 - Uholde-arriskua: Amezketa ibaiari lotutako 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eta lehentasunezko fluxu eremuek esparru honen azalera osoa hartzen dute. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatuko ditu eta 2. hautabidearen proposamenean doiketa garrantzitsuak egin beharko lirateke.
 - Kutsatuta-egon daitezkeen lurzorua: Esparru honetan ez dago IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n identifikatutako eremurik.
 - Zarata: Becker eta Errotaldeako industria jarduerak izan daitezke zarata iturri esparru honetan. Hala ere, mapa akustikorik gabe, zaila da hautabide ezberdinek proposatutako garapenek legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituzten aurreikustea.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunean bertan kokatzen dela esan dezakegu, beraz alderdi honek ez lituzke garapen berriak baldintzatuko.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.9. A.I.U. 18 Franconi** planoan irudikatu dira.

1. Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:

Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzoruaren okupazioa	-	bateragarria	nabarmena
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	bateragarria	nabarmena
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	bateragarria
Intereseko landaretza	-	nabarmena/larria	baterag./nabarm.
Intereseko fauna	-	nabarmena	nabarmena
Paisaia	-	nabarmena	nabarmena
Uholde-arriskua	-	larria	larria
Zarata	-	bateragarria	bateragarria

A.I.U. 19 OSIRIBAR	4,84 ha
---------------------------	---------

Hautabideen deskribapena

0 hautabidean esparru hau ordenazior kanpo dago.

1. hautabideak esparrua lurzoru hiritargarritzat hartzea proposatzen du, Plan Partzial baten bidez industria-gune bezala garatu ahal izateko.
2. hautabidea, ordea, 1. hautabidearen proposamena bertan behera utzi eta lurzoru hau gordetzearen alde dago.

Ingurumen baldintzatzaileak

- Lurzoruaren okupazioa: 1. hautabideak esparruaren hiritartzea suposatuko luke, hau da, 4,8 ha-ko lurzoruaren okupazioa.
- Orografia: Esparru honetan orografia laua da oro har, beraz maldek ez dituzte egin litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru honen azalera osoa Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak 'II. Eragozpen gutxi duten alubioi zabaleko lurrak' bezala sailkatzen du, eta, Nekazaritza eta Basogintzako LAP-k esparruaren hegoaldeko zatia 'balio estrategiko altuko' gunetzat dauka.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Oria ibaiak esparrua bi zatitan banatzen du. Ibai tarte hau, EAEko Ibai eta Erreken Ertzen LAP-k IV mailan sailkatzen du. Hau dela eta, alde batetik uholdeak gertatzeko arriskua dakar, aurrerago azalduko den bezala, eta bestetik, esparruetan eginiko jarduerak uren kalitatean eragina izan lezakete.
- Landaretza: Esparru honetan 2,3 ha-ko azalera duen '6510 Altuera txikiko sega-larre txiroak', eta 0,1 ha hartzen dituen '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitatak 0,5 ha-ko azalera hartzen duten bertako baso eta heskaiak azaltzen dira. Proposatutako garapenak hauen galera osoa edo partziala ekarriko lukete.
- Fauna: Esparruaren zati bat bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua'ren barne dago. Gainera, ur-ibilguak eta hauen ertzak alde batetik, eta belardi hezeak bestetik, hainbat intereseko espezieren habitat baliotsuak dira. Proposatutako garapenak esparruko biodibertsitatea zeharo murriztuko lukete.
- Naturagune babestuak: Esparru honen zati bat, bisoi europarrarentzako 'lehentasunezko banaketa-eremua' rekin ia guztiz bat datorrena, Oria Garaiko KBE-ren barnean dago.
- Paisaia: Esparru honetan baserri, larre eta baratzak dira nagusi, beraz paisaiak nekazal ezaugarriak ditu argi eta garbi. 1. hautabideak proposatutakoa aurrera eramanez gero esparrua guztiz hiritartuko litzateke eta paisaiaren kalitatea nabarmen jaitsi.
- Kultur ondarea: Esparru honetan ez dago kultur ondareko elementurik.
- Ingurumen arriskuak:
 - o Higadura-arriskua: Esparru honetan orografia laua denez oro har, arrisku hau ez da baldintzatzaile hartzen.

- Akuiferoen urrakortasuna: Esparru hau akuiferoen urrakortasun hautemangarririk gabeko gune batean kokatzen da.
 - Uholde-arriskua: Oria ibaiari lotutako lehentasunezko fluxu eremuak eta 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko urperagarritasun arriskuko eremuek esparru honetan azalera txikia hartzen dute. Hala ere, Ur-Agentziak ezarritako irizpideak kontutan hartu beharko dira, aurrera eraman daitezkeen garapenei ekiteko orduan.
 - Kutsatuta-egon daitezkeen lurzoruak: Esparru honetan ez dago IHOBEn 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n identifikatutako eremurik.
 - Zarata: Trenbidea eta errepideak dira zarata iturri nagusiak esparru honetan. Bestalde, 1. hautabideak proposatutako garapenak aurrera eramanez gero, industria-jarduera berriak zarata iturri izango lirateke eta inguruetako etxebizitzeari eragingo liekete, hotsaren inguruko legediak ezartzen duena betetzeko neurriak hartu beharko liratekeelarik.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Esparru hau hirigunetik nahiko urrun kokatzen denez garapen berriek mugikortasun beharrak handituko lituzkete. Hala eta guztiz ere, ingurua laua izanik, motorgabekoen joan-etorriak sustatzea ez litzateke zaila izango.

Ingurumen baldintzatzaile nagusiak **II.10. A.I.U. 19 Osiribar** planoan irudikatu dira.

Hautabideen ingurumen balorazioa

Ondoko taulan hautabide bakoitzak izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eraginak eta hauen tamaina jasotzen da:


Ingurumenaren gaineko eraginak	0 hautabidea	1. hautabidea	2. hautabidea
Lurzoruaren okupazioa	-	larria	-
Lurzoruaren ahalmen agrologikoa	-	larria	-
Lurrazaleko ur-ibilguak	-	bateragarria	-
Intereseko landaretza	-	larria	-
Intereseko fauna	-	nabarmena	-
Naturagune babestuak	-	bateragarria	-
Paisaia	-	larria	-
Uholde-arriskua	-	bateragarria	-
Zarata	-	baterag./nabarmena	-

LUR HIRITARREZINAREN ZONAKATZEA

Deskribapena


Indarrean dauden Arau Subsidiarioek lurzoru hiritarrezinean erabilera globaleko 6 kategoria ezartzen dituzte eta horietako bakoitzerako lurzoruaren erabilerarako arauak finkatuta daude:

- Gailurren babeserako eremua: udalerriko iparraldeko eta hegoaldeko muturretan kokatua, basa-, nekazal- eta abeltzaintza-ustiapenera zuzenduta dago.
- Babes bereziko eremua: Erbeta Iparra, Franconi, Begiristain Berri eta Osiribar esparruei dagokie.
- Jolas eremua: Langaurreko Parkea hain zuzen.
- Sistema orokorren eraginpeko eremua: errepide, bide eta lehentasunezko kaminoak eta ubide publikoetarako sistema orokorra hartzen ditu bere barne.
- Iturburu babes eremua: Alegia-Altzo-Tolosa udalerrien arteko gurutzean kokatutako bat eta Langaurre Parkearen gaineko iparrekialdean kokatutako bi iturburu dira guztira.
- Urbanizagarria ez den gainontzeko lurzoru.



28. irudia: Indarrean dagoen lurzoru hiritarrezinaren zonakatzea. Iturria: Alegiako Plangintza Arau Subsidiarioak (1996ko b-btko onesp.), VI.1.1 plano. Moldatua: EKOLUR SLL.

Arau Subsidiarioen 2003ko berrikuspenean zonakatze berri bat proposatu zen, hurrengo irudian marraztu diren 8 kategoriak ezberdintzen dituen:



29. irudia: Lurzoru hiritarrezinaren zonakatze proposamena, 2003koa.

Aipatu behar da Oria Garaiko KBEn deklarazioa 2012an gertatu zenez, zonakatze proposamena egin ondoren, 'interes naturalistikoko eremuak' kategoriarean sartzea egokituko litzaiokeela KBE bezala izendatutako tarteari.

Ingurumen balorazioa

Indarrean dagoen planeamenduaren arabeko zonakatzea erabat urria geratzen da, 2003ko berrikuspenean egindako proposamenak udalerriko ingurune fisikoaren ezaugarri eta harrera ahalmen ezberdinak zehaztasun askoz ere handiagoz jasotzen dituelarik. Hala eta guztiz ere, proposamen hau egin zenetik zenbait aldaketa gertatu dira bai ingurune fisikoan (AHTren eraikuntzaren ondorioz esaterako) baita lurralde plangintzan ere (Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek ezarritako kategoriekin ez dator bat, Oria Garaiko KBEn deklarazioa beranduagokoa denez ez da kontuan hartzen, LAP ezberdinek diotenari ere kasu egin behar zaio, Onura Publikoko Mendia bereiztea komenigarria izango litzateke, e.a.).

Lurzoru hiritarrezinaren zonakatzea aipatutako hau guztiari moldatzeko, HAPO-ren berrikuspenearen prozesu hau horretarako egokia izan daiteke.

VI. HAUTABIDEAK AUKERATZEKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK ETA INGURUMEN-HELBURUAK⁴³

Plan Orokorrean definitzen den hirigintza eredua ahalik eta iraunkorra izan dadin, hautabide ezberdinen balorazioa eta aukeraketa Ecoeuskadi 2020 txostenean eta EAEko III Ingurumeneko Esparru Programan (2011-2014) jasotako irizpide estrategikoetan oinarritzea proposatzen da, garapen-proposamenak Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) ezartzen dituen ingurumen-helburuekin bateragarri izan daitezen.

Horretaz gain, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrean, ekainaren 20ko 2/2008 lurzorua legearen testu bateratua onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuan, eta ekainaren 30eko lurzorua eta hirigintzaren 2/2006 Legean jasotako irizpideak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Alegiako Plan Orokorraren proposamenak erabakitzeke garaian, honako ingurumen-irizpideak aintzat hartu beharko dira:

1. Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea

- Planeamenduak erantzun behar dituen beharrak zorrotasunez aztertzea, etxebizitzetako-, jarduera ekonomikoko-, ekipamenduetarako-, espazio libreetako-, eta hornikuntza-arloan.
- Aipatutako beharrak asetzeko hiritartu gabeko lursailak erabili baino lehen lurzoru antropizatua berrerabiltzeari lehentasuna ematea.

Irizpide honen eta aurrekoaren arabera, proposatutako hautabideen artean Orendain, Hegoalde eta Errota esparruak dira egokienak hiri-garapenak jasotzeko. Osiribar esparruan, ordea, jarduera ekonomikoak ezartzeko lurzoru hiritartzen hasi aurretik, Bazurka esparruaren aukerak ahitu beharko lirateke.

- Hirigintzarako luraren erabileran lurzorua zigilatzea murriztea, dagoen lur bigun eta landaretzaren babesa sustatzea.

Lurzoru 'bigun' edo artifizialdu gabea zigilatzea saihestuko dituzten proposamenak hobetsiko dira, batez ere ahalmen handiko lurzoruak mantentzen diren esparruetan. Hortaz, Erbeta Iparran, Franconin eta batez ere Begiristain Berrin proposaturiko garapenek ez lukete lehentasunik izan behar, beharrezkoak jotzen ez diren bitartean.

- Hirigunean eraikitako ondarearen biziberritzea eta etxebizitza hutsak erabiltzea.
- Kutsatutako lurzoruak kudeatu eta balorizatzeko modu egokian sustatzea eta erraztea.

Garapenak aurreikusten diren esparruetara mugatuz, Erbeta Iparrak eta Errotak kutsatuta egon daitezkeen lurak barne hartzen dituztela ikus daiteke. Legeak zehazten dituen baldintzetan 'Lurzoruraren aitopene deklarazioa' lortu beharko da esparru hauetako jarduerak martxan jarri baino lehen.

2. Hirian bereizketa eta sakabanatzea saihestea

⁴³ Ihobe, 2005. Hirigintza-planeamenduak iraunkortasun irizpidez idazteko eskuliburua. Eusko Jaurlaritza.

- Hiri trinkoaren eredua sustatzea. Lurzoruaren erabilera modu misto eta malguan planifikatzea.

- Nahiko altuak diren eraikuntza-dentsitateak sortzea.

2. hautabideak dentsitate altuagoko garapenak proposatzen ditu orokorrean, beraz hautabide hobea da irizpide honen ikuspuntutik.

- Lurzoruaren erabilera eta mugikortasun jasangarria modu integratua planifikatzea, garraio publikoko eta bizikleta-bideen garapen berrien zuzkiduraren bidez, edota mugikortasun beharrak murriztuz.

Proposatu diren etxebizitza-garapen gehienak hirigunean kokatzen dira edota bertatik distantzia txikira. Jarduera ekonomikoetarako esparruei dagokienez, 1. hautabideak Osiribarren proposatutakoaren kasuan, hirigunetik kanpo kokatzen da baina ingurua laua denez eta bizikleta bideak hirigunearekin lotzen duenez, mugikortasun beharrak bai motordun ibilgailu pribatuen bidez bai bizikleta bidez asetuko lirateke.

- Familia bakarreko etxebizitzaren edo etxebizitza txikien tipologiak ahalik eta gehien murriztea. Erabilera pribatuko espazio libreak ekidin.

Hegoalde esparruan eginiko garapen proposamenak erabilera pribatuko espazio-libreak ekiditeko irizpide honekin bat datoz.

3. Hirigunearen ingurumen-kalitatea hobetzea

- Hiri-izadia eta landagunea lotzen dituen korridoreak eta eraztun berdeak sortzea.

Udalerriko intereseko landaredia, batez ere, ur-ibilguen ertzeko haltzadiak osatzen dute; dena den, bestelako hostozabalen baso eta heskaiak babesteko irizpidea hartuko da berrikuspenean egiten diren hirigintza-garapenetan.

- Berdeguneetako eta herri barruko ibai-tarteetako ingurumen-kalitatea hobetzea.

Ur-ibilgu bideratuak, ingurumenaren aldetik ezaugarri negatibotzat jotzen dira oro har. Alegiaren kasuan, hala ere, uholde enarak hirigunean ibaia bideratzeko eraikitako hormak erabiltzen ditu, Gipuzkoako koloniarik handienetakoa bertan osatuz. Beraz, Amezketan ibaiaren aldamenean oinezkoentzako ibilbidea egiteko orduan, espezie mehatxatu honi eragozpenak ez sortzeko neurriak hartu beharko dira, Kiroldegia, Hegoalde eta Eskola esparruetan bereiziki. Bestalde, hiriguneko ibai ertzetan landare exotiko inbaditzaile asko (Platanus x hispanica, Fallopia japonica eta Buddleja davidii espezietaoak batez ere) agertzen dira, honek habitataren kalitatea murrizten duelarik.

- Paisaia-faktorea udal-plangintzaren barruan sartzeta.

Hautabideetako batzuk paisaiarengan eragin nabarmena izan dezakete, egun nekazal-paisaia azaltzen duen esparruetan garapenak proposatzen dituztelako, Osiribar eta Begiristain Berriren kasuak izanik nabarmenenak.

4. Habitata eta ingurune naturala mantentzea eta hobetzea

- Interes komunitarioko habitatei arreta berezia eskaintzea.

Interes komunitarioko habitaten babesa, mantentzea eta hobekuntza 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauak maila europarrean ezartzen duen helburu eta irizpide bat da. Hau dela eta, alde batetik, Begiristain Berri eta Osiribarren proposatutako garapenak ez lukete irizpide hau beteko 6510 interes komunitarioko habitataren desagerpen partziala eragingo bailukete eta, beste alde batetik, ur-ibilguen inguruan dauden esparruetan, garapenak aurrera eramateko orduan 91E0 lehentasunezko interes komunitarioko habitatari eraginik ez egiteko neurriak hartu beharko lirateke.*

- Landaredia kontserbatuz, bereziki basoak eta ibaiertzetako landaredia.
- Naturagune babestuetatik kanpo dauden eremuen konektibitatea babestea eta berreskuratzea.
- Mehatxatutako flora eta fauna espezieen lehentasunezko banaketa zonak eta interes bereziko eremuak babestea.

Garapen proposamenak dituzten zenbait esparruetan bisoi europarraren lehentasunezko banaketa eremuarekin bat dator, hala nola: Erbeta Iparra, Orendain, Hegoalde, Franconi Begiristain Berri eta Errota.

- Paisaia naturala eta landa-paisaia babestea.

Lurzoruaren erabileraren inguruan ezarri diren irizpideekin bat eginez, ahal den neurrian udalerriko paisaia naturala eta landa-paisaia babesteko dira, mota honetako paisaiak egoera onean mantentzen dituzten eremutan hirigintza-garapenak kokatzea saihestuz. Kasu honetan, Osiribar esparruan 1. hautabideak proposatzen duen jarduera ekonomikoetarako garapenen beharraren inguruan hausnarketa sakona egin beharko litzatekeela uste da, eta baita Begiristain Berrin proposatutako etxebizitza garapenen inguruan ere.

5. Aire eta soinu-kalitatea mantendu edota hobetzea

- Partikula eta igorpenen kontzentrazioa areagotzen ez duten proposamenak aurkeztea.
- 1367/2007 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak lortzeko planak martxan jartzea.

Biztanleria zarata-maila altuegitatik babesteko, Plan Orokorrak hirigintza-garapen berriek (bereziki etxebizitza eta ekipamenduei dagokionez) kalitate akustikorako helburuak betetzen dituztela ziurtatuko du. Plan Orokorrean bertan udalerraren zonifikazio akustikoa egin beharko da, eremu bakoitzaren kalitate akustikorako helburuak zeintzuk izango diren zehazteko; honen arabera, garapen ezberdinak erabilera-mota bakoitzerako egoera akustiko egokiena azaltzen duten eremuetan kokatuko dira.

- Artifizialdu gabeko eremuetan argi-afekzioa murriztea.

Eraikin berrietako esparru publiko eta komunetan, kontsumo apaleko argiztapen-sistemak erabiliko dira, aldi berean, argi-kutsadura ekiditeko.

6. Uraren kalitatea eta baliabide hidrikoen kudeaketa hobetzea

- Baliabide eta ingurune hidrikoak babestea.

Ingurumen-helburu hau betetzeko irizpide nagusia EAEko Ibai eta Erreken ertzak antolatzeko LAP-ak ezartzen dituen gutxieneko tarteak errespetatzea eta LAP honen araudia betetzea izango da. Honen arabera, Erbeta Iparra, Franconi, Begiristain Berri eta Errotan proposatutako garapenak aldatu edo baztertu beharko dira, izan ere uholde arrisku altuko eremuetan baitaude.

- Hondakin-uren tratamenduak isuriari eta inguru hartzaileari egokitzea.

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen 15. artikulua eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean, premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua adierazten dutenez, prozesuan zehar planaren esparruko hornikuntza-eskari berriak asetzeko beharrezkoa izango den Jabari Publiko Hidraulikoaren babesari buruzko txostena, baliabide hidrikoei buruzko administrazio hidrologiko eskudunak idatzi beharrezkoa.

7. Hiri-metabolismoa hirigintzako planetan lehentasun gai gisa sartzea
 - Hondakinak murriztea.
 - Tratamendurik gabeko zero isurketak.
8. Energia aurrezpena eta eraginkortasuna
 - Energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
9. Baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea.

VII. PARTE-HARTZE PUBLIKOA

Hasierako Dokumentua idatzi aurretik lantegi edo tailer ezberdinak antolatu eta intereseko taldeei zuzendutako inkestak luzatu dira, Alegiako herritarrek udalerriri buruz daukaten hautematea jasotzeko:

- Helduentzako informazio-bilera eta haurrentzako diagnosi-lantegia: 2013ko azaroan egin zen eta 24 heldu eta 13 haur bertaratu ziren.
- Egoera hipotetikoak baloratzuz udalerriko onurak eta eragozpenak identifikatzeko lantegia: 2013ko azaroan burutu zen eta 16 herritar bildu zituen.
- Diagnostiko subjektiboaren emaitzak plano batean islatzeko lantegia: 2013ko abenduan egin zen eta 13 herritar bildu zituen.
- Inkestak: Alde Zaharrear bizi direnei, 18-35 urte bitarteko gazteei, 14 urtetik beherako umeen gurasoei eta merkatariari zuzendutakoak. 51, 34, 32 eta 11 erantzun jaso zituzten hurrenez hurren.

Behin Hasierako Dokumentu honi dagokion Foru Aldundiaren 'Erreferentziazko Agiria' jasota, herritarrekin lantegiak antolatzea aurreikusten da garapen proposamenak aurkeztu eta hautabideak lantzeko.

Aurrerapen Dokumentua onartu eta gero, honako ekintza hauek aurreikusten dira:

- Dokumentua jendaurrean jartzea Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.
- Dokumentua dagokien sektore erakundeei helaraztea.
- Jasotako iradokizunei erantzuna ematea eta, hala behar izanez gero, dokumentua moldatzea.

Azkenik, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren arabera, HAPOk Hasierako Onarpena jasotzerakoan berriro ere jendaurrean aurkeztu beharko da eta alegazioei erantzun Behin-Behineko Onarpena jaso ahal izateko.

PLANOAK